

Herririk Herri | 4 |

Elorrioko Hiri Antolamendurako Plana
Jaurlaritzaren onespeneren zain

Amalurra | 14 |

Urkiolako Parke Naturalak hainbat ekitaldi
prestatu ditu datozen asteetarako



Berbaz | 9 |

Alberto Casado: "Indiako gazteekin
hezkuntza arloan dihardugu lanean"

Traña-Matienako garbiketaren ardura lehiaketa publikoan

- > Independienteek diotenez, garbiketa zerbitzua bost egunetik seira eta industriaguneetara zabalduko dute
- > Hartuko duten enpresak garbiketaren diharduten udaleko hiru langileak subrogatuko ditu

03



Juanra de la Cruz

Lana topatzeko trabak gaindituz, igerilekuetako tabernan beharrean


Durango • Txukunberri enpresak udalagaz akordioa sinatu du igerileku berriko tabernen kudeaketarako. Lan merkatuan txertatzeko oztopoak dituztenei enplegua topatzen laguntzea da helburua. Esperientzia eta formakuntza eskaintzea gura dutela azaldu dute ekimenaren bultzatzaileek. Udan Tabirako igerilekuko tabernan dihardute.

2

Iazko jokamoldeari leial, bihar hasiko du liga Kulturalak

KIROLA • Durangoko Kulturalak Baskoniaren zelaian hasiko du liga. Joan zen astean lagun arteko partidua jokatu eta 3-2 galdu zuten Axier Intxaurrearen mutilek. Hamar jokari berri daude taldean; euretako bi gazteen mailatik igotakoak dira. Ricardo Txintxurreta kirol zuzendariak argi ditu aurtengo helburuak: iaz zaleak gustura utzi zituen jokamolde finari leial eustea.

15



• **Durango**

Etorkinek euren hizkuntzan arreta jasotzeko aukera

2

• **Abadiño**

Errogatiba Eguna ospatuko dute zapatuan Urkiolan

3

• **Berriz**

Frankismoaren biktimei gorazarre egiteko erakusketa

5

• **Atxondo**

Urriari anbulategi berria eraikitzen hasiko da udala

6

A. Urreta podologia

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Ainara Urreta Jainaga
PODÓLOGA 100. Elkargokidea

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyelexpe.biz

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Igerilekuko taberna kudeatzeko akordioa, lana aurkitzeko trabak dituztenen lagungarri

Txukunberri enpresak lan munduan txertatzeko arazoak dituztenak trebatzeko baliatuko du taberna

Igerileku berriko tabernaren urte birako kudeaketa Txukunberri enpresari uzteko hitzarmena sinatzea onartu zuten azken udalbatzarrean. PP alderdia bakarrik abstenitu zen, esleipena ez zelako lehiaketa publikoan ipini.

Txukunberri Osoko Zerbitzua enpresak lan merkatura txertatzeko oztupoak dituztenei (55 urte-rik gorako langabetuei, guraso bakarreko familia duten emakumei...) enplegua aurkitzen laguntzea du helburu. Erakunde honek Zabaltzen-Sartu irabazi asmorik bako enpresa du atzean, eragile nagusi moduan.

Helburu sozial horiekin lanean dabiren eskualdeko enpresa bakarra da Txukunberri

Txukunberri, batez ere, ostalaritza eta garbiketa zerbitzuen arloa lantzen du, desabantailan dauden langabeen lanpostua bilatzen laguntzeko. Durangon martxan ipini duten proiektuan erakunde, elkarte eta eragile askoren laguntza jaso dute.

Txukunberriren proiektuan parte hartzen dabiltzanak zerbi-

tzu sozialetatik eratorriak dira; aurretiazko filtro horixe da baldintza bakarra. Behin lagun horiek batuta eta Durangoko ostalaritzako elkarteekin batzartu ondoren, ostalarien artean "sektore horre-

Igerileku berrietako taberna irailaren amaieran edo azaroaren hasieran ipini gura dute martxan

tan lan egiteko kualifikazio bereziko lagunak gabezia jakinarazi ziguten", azaldu du Txetxu Otero Txukunberriko gerenteak. Beraz, otsailean hasi eta maiatzera bitartean, alor horretako 300 orduko formazio ikastaroa eman zieten 15 bat laguni Behargintzan.

Ondoren, merkatu normalizatura sartu aurretik, Jaurlaritzak agintzen duenez, langileek gutxienez hiru urtean egon behar dute enpresari lotuta, ikasitakoa praktikan ipini eta esperientzia batzen. Orduan sartzen da prozesuan Udalgaz sinatutako akordioa. Langileek igerileku berriko tabernan lan egingo dute—kontratuagaza eta profesionalen eskubide eta bete-behar berberekin— beharrezko



Irailaren erdira arte Tabirako kanpoko igerilekuan dabilta lanean. Juanra de la Cruz

jakintza praktikoa bereganatzeko. Prozesuko azkeneko urratsa merkatu normalizatuan enplegua aurkitzea da. Zeregin horretan akordio konkreturik ez, baina, esa-

terako, +Dendak-en "aldeko jarra" dute: "Guk formazioa eta esperientzia daukaten langileak eskainiko ditugu". Igerileku berriko taberna irailaren amaieran edo

azaroaren hasieran zabaltzea itxaroten dute. Bitartean, udako hiru hileetan eta helburu beragaz, Tabirako igerilekuko tabernan dihardute. ■ J.D.

Hainbat eragile batzen dituen egitasmoa

Txukunberri desabantailan dauden lagunak lan merkaturatu txertatzen diharduen "enpresa bakarra" da Durangaldean, Txetxu Oteroren esanetan. Horregatik, Udalgaz sinatutako akordioari balio handia ematen diote: "Gizartearen garapenean egiten dugun lana aintzatesteke modua dela sentitzen dugu". Baina Txukunberriren proiektuak beste hainbat erakunde, elkarte eta eragileren konpromisoa ere jaso du: Amankomunazgoa, elkarte lokalak, Jaurlaritza, Aldundia... Horrela, "bakoitzak bere aletxo jarrita", enplegurik gabe dauden

lagunei merkatu normalizatura heltzen laguntzeko plan integrala eratu dute: "Diru-laguntzak ondo daude, baina merkaturatzeko baliabideak eskaintzea ere garrantzitsua da, bide hori bakarrik egitea zaila delako. Erakundeek ulertu dute egoera hori, eta krisi sasoiaren egon arren, kasu honetan behintzat, denak bide berean lan egiteko ados ipini dira". Izan ere, azken batean, kalkuluek erakusten dutenez, "prozesuaren amaieran dirua aurreztu egiten dela ikusten dugu; ikerketen arabera, 10.000 euro inguru lagun bakoitzeko". ■ J.D.

Etorkinek euren hizkuntzan jasoko dute arreta zerbitzua

EUDEL eta Jaurlaritzaren arteko hitzarmenak ahalbidetuko du itzulpenerako zerbitzua

EUDEL-en (Euskadiko Udalen Elkarte) eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmenak etorkinei udal-letan euren hizkuntzan hartzeko baliabideak eskaintzea du helburu. Egitasmoa batez besteko etorkin kopururik handiena duten herrietan abiatu zuten 2009an; EAEko hiru hiriburuetan, eta Getxon, Irunen eta Barakaldon. Hile honetan Durangon eta Ermuan ipini dute martxan, esperientzia pilotu moduan.

Dualia enpresak eskainiko du zerbitzu hori, eta telefono bidezko kontsulta edo gestioetan eman-

go da. Enpresa horrek 50 hizkuntza ingurutan eman dezake aldi-bereko itzulpena.

Itzulpenak telefonoz emango dira, 50 bat hizkuntzatan, Dualia enpresak kudeatuta

Zerbitzu hori udaleko zerbitzu sozialen bitartez bideratuko da, eta hauek aldian aldiko egitasmoetan dabiltzanen eta itzulpen-gintza behar dutenen eskura jarriko dute zerbitzua. ■ J.D.

Txosnetan "terrorismoa goratzeko debekua" udal araudira gehitu dute

EUDELek eta Barne Sailak 2009an adostutakoa jaso dute ordenantzaren

2009ko irailean EUDEL eta Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak "terrorismoaren gorazarrea egiten duten kartelak eta pintadak euskal udalerrietatik ezabatzekeko protokoloa" adostu zuten. Testuko atal batek txosnei ere egiten zien erreferentzia, eta, besteak beste, terrorismoa goratzen dutela deritzoten txosnei isunak jartzeko bidea irekitzen zuen.

Azken udalbatzarrean testu hori txosnen gaineko ordenantza-ri gehitzea onartu zuten PSE-EE, PP eta EAJren botoekin. Aralarrek kontra bozkatu zuen eta Talde Mistoak udalbatzara utzi eta ez zuen bozketan parte hartu.

PSE-EEko zinegotzi Pilar Riosek onartutako testua "minimoen akordioa" zela esan zuen, eta EAJ kritikatu zuen sarritan "jarrera anbigua" erakusten duelako. Aitziber Irigoras alkatearen esanetan, "EAJk etenik barik erakutsi izan du biktimeko eta bakeagazko konpromisoa".

Oier Perez Talde Mistoko zinegotziaren esanetan, "horrelako neurri errepresiboak ez diegu ez-lako zilegitasunik ematen, ez datoz jendeak pentsatzen duenagaz bat, eta horregatik egin diegu uko bozketan parte hartzeari".

Aralarreko zinegotzi Dani Maezturen ustez, dagoeneko

badago eremu hori arautzen duen legea, 2008an Parlamentuak onartutakoa. Beraz, orain hori udal mailara ekartzeari "bazzerrak nahastu" ibiltzea deritzo.

PPk ontzat jo zuen testua barneratzea, nahiz eta PSE-EEk azkeneko proposamen horren aurretik aurkeztutako beste bat "osoagoa eta zehatzagoa" begitantzen zitzaion. ■ J.D.

Aralarrek kontra bozkatu zuen udalbatzarrean, eta Talde Mistoak bozketan parte ez hartzea erabaki zuen



ABADIÑO

Errogatiba Eguna ospatuko dute bihar Urkiolan

Ohitura jarraituz, abuztuko azkeneko zapatuan, herritik goizean goiz abiatuta ospatuko dute Urkiolako santutegian Errogatiba Eguna. Herritik santutegirainoko bidea, tradizioari eutsiz, oinez eta prozesioan egingo du hainbatek, eta goizeko 10:30ean autobusean abiatuta egingo dute beste abadiñar batzuek. Ohiturak agintzen duenez, hamarretakoa egingo dute ibilbidearen erdialdera oinezkoek, eta eguerdian batuko dira Urkiola gainean Errogatiba Egunagaz bat egiten duten guztiak. Santutegian 11:30ean meza dago; gero, jubilatuentzako bazkaria egingo dute.

Oinez edo autobusean bertaratuko dira abadiñar asko Errogatiba Egunaren ohiturari hutsik egin barik

Herriko jubilatuentzako bazkarirako izena eman dutenez gainera, jatekoa etxetik eraman eta Errogatiba egunean Urkiolako landetara bazkaltzera batzen diren herritar askok ere ez dute hutsik egingo, denen elkargune da-eta biharko egunez Urkiola. ■ I.E.

Traña-Matienako garbiketa zerbitzua azpikontratatzearabaki du Udalak

Garbiketa zerbitzua bost egunetik seira eta industriaguneetara zabaltea da helburua

Abadiñoko Udalak Traña-Matienako garbiketa zerbitzua urte amaieran subkontratatzearabaki du. Lanaren ardura lehiaketa bidez jasotzen duen enpresak 418.900 euro jasoko ditu. Matienan gaur egun garbiketan diharduten hiru langileak baldintza beretan subrogatuko dituzte. Neurri honegaz, garbitasun zerbitzua bost egunetik seira eta industriaguneetara zabaltea da udalaren asmoa.

Erabakia hartzeko udalbatzarrean, Independentteek eta EAJk alde bozkatu zuten. Axier Garate jeltzaleak azaldu duenez, aurreko legegintzaldian neurri hau herri osoan hartzea proposatu zuten: "Garbiketa zerbitzua Traña-Matienan bakarrik sub-

kontratatzearabaki borondate politiko falta izan du".

Igor Arkarazo zinegotziaren berbatan, "langileen eskubideen aurkako erabakia da". Berdintasun soziala alde batera utzi dutela salatu du Ezker Abertzaleak: "Orain enpresak jarriko ditu langileak kontratatzeko irizpideak. Independentteek herri politika beharrezko auzo politika egiten dihardute". EAJren jarrera ere kritikatu dute: "Auzo politika horren kontra daudela diote, baina aldeko botoa eman dute". ■ J.G.

Ezker abertzaleak garbiketa zerbitzuaren erabakia kritikatu du. Langileen aurkakoa dela dio



Traña-Matienako garbiketa lehiaketa publikoan ipiniko dute.

Neoklasiko garaiko hilerria berrizteko lanak hasi dituzte

Hainbat hobekuntza egingo dituzte, baina eraikuntzaren berezko ezaugarriak mantenduz



Hormetako hareharria garbituko dute, besteak beste.

Uztail amaieran ekin zien udalak Zelaietako hilerria berrizteko lanei. Lau hilabetean zehar jardungo dute 288.200 euroko aurrekontua daukaten lanok burutzen.

San Trokaz elizaren aldamean dagoen neoklasiko estiloko hilerria berriztu, baina dituen ezaugarriak gordetzea da helburua, gobernua dioenez: "Inguruaren itxura hobetzeko lanak dira, hilerriaren balio arkitektonikoa gordetzea helburu dutenak".

Lanak amaitzeko lau hilabeteko epea eta 288.000 euroko aurrekontua daukate lanek

Harlauzak eta estalkia berritu eta hilerriaren hormetako hareharria garbituko dute, besteak beste. Gainera, hilerriko argiteria, elektrizitatea eta arotzeria ere berrizteko dituzte, eta irisgarritasuna hobetzeko beste hainbat behar ere burutuko dituzte. ■ I.E.

Udaletxe atzeko lursaila, zaharren egoitza eraikitzeko

Udalak 9.000 metro karratuko lursaila utziko dio Aldundiari zaharren egoitza eraiki dezan

Udal gobernuko talde Independentteak jakinazi duenez, negoziazio luzeen ondoren lotu du Bizkaiko Aldundiagaz zahar egoitzaren eraikuntzari dagokion akordioa udalak: "Udaletxearen atzekaldeko 9.000 m²-ko lursaila urbanizatuko du udalak", azaldu du gobernuko taldeak ohar batean, "beharrezko aurrekontua daukanean zaharren egoitza eraikitzeko obrak hasi ditzan Aldundiak". Urbanizazio proiektuaren idazkuntzarako 100.000 euro bideratzea onartu zuen udalak uztailaren udalbatzarrean.

Proiektuari ekiteko aurrekontua daukanean, Aldundiak

zaharren egoitza Abadiñon eraiki dezan ziurtatzeko modu legez aurkeztu du gobernuko taldeak akordioa. Aurreratu dutenez, 120 laguntzako egokituko du Aldundiak zaharren egoitza. ■ I.E.

"Lursaila urbanizatuzko proiektua idaztera 100.000 euro bideratuko ditu udalak"

"Aldundiak 120 laguntzako zaharren egoitza Abadiñon eraikitzea ziurtatzeko aukera" ei da akordioa

Durangaldeko Baserritarren Elkarteak

DIBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

katerin ardoak
iñaki uribe

saltzan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltzan.com

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO
Tel.: 94 681 50 17

Gremioen gida



Iturgintza

Arriandi ITURGINTZA

Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa

Arriandi, 16 - behe, 3 atea
Sakelakoa: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 58
lurreta

Baimendun
Instalatzailerak

Elektronika

URBASA Elektronikak

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic

Telebés
Instalazioak
Otziala

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 lurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Argiztapena

ARGIZTAPEN TERNIMAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behe
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Eraikuntza

arlax

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Baserriak eta etxebizitzak
berriztatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B Sakelekoa: 615 77 91 70
DURANGO 605 77 03 57

urtiaga

Salguren Kalea, 3
48200 Durango
Tel.: 94 681 41 74
MATEA/ABADINO

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Arotzeria

EGUIA S.L.

AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

Ubide

iturgintza

188 PK,
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Garbiketak

AZKARGI

GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalatuak eta alfonbrak

Goietia, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

Informatika

elaia IT

Information Technology S.L.

ZURE SISTEMA INFORMATIKOA
EZ DA UMEEN JOLASA

- TIC aholkularitza
- Ekipamendu hornikuntza (kontsumigarriak)
- Konfigurazioa eta instalazioa
- Mantenimendua
- Formazioa
- LOPD/LSSI adaptazioa

www.elai.es • e-mail: info@elai.es
Tel.: 94 640 98 98

sagasta

ITURGINTZA

Iñaki Urien Madrazo
Industria Azpiegiturak

GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA

Sagasta auzoa, Ambe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 98 24



BERRIZ

Frankismoaren biktimei gorazarre egiteko erakusketa

2005etik ohitura den legez, aurten ere ekitaldiak izango dira irailaren 11ren bueltan

Udalak eta Berriz 1936 Gogoratzeko elkarteak eraturako Frankismoaren biktimei gorazarre egiteko ekitaldiekin hasteko, *Hildakoak hilotzat ateraz, duintasanak berreskuratuz* izeneko erakusketa ipiniko dute martxan, datorren barikutik aurrera, Kultur Etxean. Aranzadi Zientzia Elkarteak 2000. urtetik hona 1936ko gerrako hobien inguruan burututako ikerketa-lana batu dute erakusketa honetan.

Argazkien bitartez, hobitak ateratzeko prozesua azaltzen dute, alor zientifikoa eta giza alderdia erabiliz. Gainera, erakusketa arreta berezia eskaintzen zaie desagertuen familiei.

Irailaren 3an hasiko da, beraz, ekimena; Iñaki Egañak egingo du aurkezpena arratsaldeko 19:00etan. Irailaren 11n itxiko dituzte atek erakusketa, eta ordura arte astelehenera barikura bisitatu ahal izango da, 18:30etik 20:30era. Asteburu bietan, kultur ekintzak

daudenean ere zabalik egongo da, antolatzaileek argitu dutenez.

Omenaldia

Erakusketagaz emango zaio hasiera oroimena eta biktimei gorazarrea oinarri dituen ekimen honi, eta irailaren 10ean eta 11n jarraituko du programazioak. Hilaren 10erako kultur ekintzak antolatu dituzte Berrizen: goizean dokumentala eta gauean dantza ikuskizuna eskainiko dituzte.

Hilaren 11n izango da ekitaldi nagusia, 13:00etan hasiko den omenaldiagaz. Felipe Urriaga alkate izan zena eta Jose Agirre guardia herritarra 1937. urtean fusilatutako zituzten eguna da irailaren 11, eta horregatik aukeratu zuten egun hau omenaldirako. ■ M.O.

Irailaren 10erako kultur ekintzak antolatu dituzte: dokumentala eta dantza

DURANGALDEA



Javi Etxebarria eta bere kideak, baldeekin lokatza batu eta hondakinak baztertzen. Iban Ciriza

Indiako uholdeak bertatik bertara bizi izan zituztenen testigantza

Javi Etxebarria berriztarra eta Txus Ruiz de Erentxun durangarra espedizio banako kide ziren, abuztu hasierako uholdeak ezustean harrapatu zituenean

Javi Etxebarria Kaxmirreko Nun mendia igo guran zebilen abuztu hasierako uholdeak gertatu zirenean. Leherritik Kargilera joan eta hantxe harrapatu zituen gaueko eurijesak; hurrengo egunean, Leh hirira itzuli behar izan zuten.

Euri-jasak ibilbidea urez estali eta zubi bat aurretik eroan zuten; espedizioa kideek euren blogean zehazten dutenez, toki horretan, zazpi lagun ere hil ziren. Biharamunean lur-jauzi bat gertatu zen hirian, 200 hildako inguru eragin zituena. Egoera ikusita, hondakinak albotratzen, autoak lokatzetatik ateratzen eta ahal zutenean laguntzen eman zuten eguna: "Jendeak herriko puntu garaietara edo

mendira alde egin zuten; bertan geratu zirenak ere arineketan hasten ziren euri tantak somatu orduko", diote blogean. Amaitzeko, espedizioa bertan behera utzi behar izan zuten. Etxebarriak irailaren 1ean itzultzea aurreikusi du.

Erentxunen bizipena

Txus Ruiz de Erentxun kaiakista eta mendiko gida ezaguna ere Leh hirian zegoen uholdea gertatu zenean. Aurreko egunean Zanskarreko erreka jaitsi zuten 16 bezerogaz batera. Errekako urak "handituta" ikusi zituen. Zubi batzuk apurtu ziren, baina arazo barik jaitsi zirela azaldu du. "Goizeko lauritan irtetzekoak ginen erreka jaitsera, baina autobusa ez zen etorri. Bila joan nintzen eta

geltokiaren ondoan gertatu zen guztia. Nahiko arin heldu nintzen. Auzo eta leku konkretu batean gertatu zen, ez herri osoan. Etxeak erreka ondoetan daudenez, uholdeekin jauzi egin ziren. Inguru pobrea da". Egun bi geroago erre-

Etxebarriak zein Ruiz de Erentxunek ahal zuten laguntza eman zuten uholdeak eta gero

ka jaitsi zuten egoera ikusteko nepaliar eta italiar batez. Zubietako sokak jarri eta erreketan arbolak apartatzen lagundu zuten. Militarrak "atoan" etorri zirela hondakinak kentzen laguntzera adierazi du durangarrak. ■ J.D./J.G.

IURRETA

Askondoko zaborrontziak lurperatuko dituzte urrian

BBK aurrean eta Askondoko boulevardean dauden zaborrontziak kendu gura ditu Udalak

Iurretako herriguneko zaborrontziak kendu eta lur azpiko zaborrontziak jartzen dabil azken urteotan udala. Hurrengo lur azpiko zaborrontziak Askondo kalean jarriko dituzte, bi gunetan. Urriaren egingo dituzte lanak, eta Askondon eta Bixente Kapanagan, BBK aurrean, dauden zaborrontziak kentzea da udalaren asmoa.

Herriguneko zaborrontzi gehienak lurpekoak izango dira Askondokoak egin eta gero. Maspen eta Bidebarrietan bakarrik

egongo dira bestelakoak. Geroago kale horietan lan batzuk egin behar dituzte, eta lanak egin arte ezingo da horrelako zaborrontziarik ipini.

Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez, "lurpeko zaborrontziak mantentzea garestiagoa da, baina merezi du". Herriko itxura eta garbitasuna hobetu direla dio alkateak: "Metodo hau garbiagoa da eta usain gutxiago uzten du, beti ere zaborrontziak ondo erabiltzen baditugu".

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Marcellas
Alberdi Harategia

ALBERDI
preko zina uala

CENTRAL FORESTAL
35 Urte Euskal Basoen Zerbitzura

Smurfit
Nerviñ
Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!

Smurfit
ibersaac
Eta azkenik paperezko zakurik ederrenak!

OTXANDIO

Mendi bizikleta martxarako izena emateko aukera

Irailaren 11ko zapatarako mendi bizikleta martxa antolatu du udalak. Aurretiaz izena eman gura duenak www.otxandio.net-en egin dezake inskripzioa, irailaren 10era arte. Federatuentzako 10 euro da izen-ematea, eta federatuta ez daudenentzako 12 euro.

Martxan parte hartzeko asmoz bertaratzen direnek pilotaleku inguruan eta igerilekuetan utzi dezakete autoa. Izaera lehia-korrik ez duen martxa plaza nagusitik abiatuko da, 09:30ean.

Ibilbidea Otxandion hasi eta amaituko da, eta 40 kilometroko luzera du. Mirugainetik itzulian, Astakurutz eta Presazelai pasa eta Motxotegi inguratuko dute parte-hartzaileek. Azpikoarritik aurrera, Otxandio ondotik Kondebasorantz joango dira eta handik berriro hartuko dute helmugarantzko norabidea, Otxandiora bidean. ■ J.D.

Irailaren 11n 40 kilometroko bizikleta martxa dago; besteak beste, Mirugain eta Motxotegi inguruetan antolatu dute

IZURTZA

Ordenamendua berrikusteko aholkulariak

Herriko Antolamendurako Plan Orokorra berrikusteko prozesuan parte-hartze dinamikoa izan dezan, ordezkari politikoei eta herritarrek osatutako 15-18 taldea eratuko dute irailean. Hain zuzen, herriko antolamendua berrikusiko duen enpresaren eta herritarren arteko zubia izatea du laster eratuko duten aholku batzordeak egiteko nagusia.

Herriko antolamendurako plana berrikusterakoan auzoetako beharriaren berri zuzena jasotzeko asmoa dute

Herriko elkarteetako kideei egingo diete batzordean parte hartzeko gonbita, eta ikasturte berriagaz batera ekingo diete batzarrei. Antolamendurako plana berrikusterakoan auzoetako beharriaren berri zuzena izatea da, udalean diotenez, aholku batzordea sortzeko helburua. Horrela, plan orokorraren aholku batzordean auzo guztietako ordezkariak gura dituztela azaldu du gobernu taldeak. ■ I.E.

MAÑARIA

Herri sarrerako biribilgunea laster prest

Biribilgunearen inguruan seinaleak eta argiteria ipintzea falta dute lanak amaitutzat emateko. Udalak obra esleitu zuenean zehaztutako epearen barruan, beraz, iraila amaitu orduko, emango dituzte biribilgune berria eraikitze lanak amaitutzat.

Joan zen apirilean ekin zieten Izurtza eta Mañaria arteko biribilgune berria eraikitze lanei, eta 780.000 euroko aurrekontuagaz jardun dute.

Biribilgunea eraiki ahal izateko lursaila lagatzea eta inbertsioaren parte bat euren gain hartzea adostu zuen biribilgune berriaren aldamenean dauden enpresa biek udalak, eta hitzarmena lotu zuen eurekin. ■ I.E.

Datozen asteetan seinaleztapena eta argiteria ipintzea bakarrik falta da

Lanak esleitu zituztenean zehaztutako epearen barruan amaituko dituzte obrak



Egun gutxi barru emango dituzte lanak amaitutzat.

MALLABIA

Zengotitako jai egitaraua ekitaldiz beteta dator

Ardi eta ahate txakurren erakusketa ikusgai izango da abuztuaren 29an Zengotitan

Zengotita auzoko jaiak bihar 20:00etan txopoa jarrita hasiko dira. Ondoren, 21:00etan, afaritan batuko dira. Meza nagusia domekan 11:30ean izango da. Txarriaren hanka eskegi eta zenbateko altueran dagoen jakiteko kinielak egingo dituzte jarraian. Ardi eta ahate txakur erakusketan, 13:00etan Imanol Etxebarriak Jai

txakurrak eta Alejandro Ibarrek Ekin eta Mendi txakurrekin parte hartuko dute. Txarriaren hanka 14:30ean neurtuko dute; gonbidatuek ordu horretan bazkalduko dute. Bolo txapelketa nagusia 17:30ean izango da. Umeen jolasak eta puzgarriak 18:00etan presatuko dituzte. Ondoren trikitalariak alaituko dute giroa.

Auzoko hildakoen meza abuztuaren 30ean 12:00etan izango da. Paella eta bolo txapelketetan eguerdian parte hartu ahal izango da. Arratsaldean asto probaketa karretila zozketa egingo dituzte. ■ J.G.

Meza, bolo txapelketa, umeen jolasak, paella txapelketa, trikitalariak eta asto probak, besteak beste, jai egitarauan

ATXONDO

Urrian hasiko dituzte anbulategi berria eraikitze lanak

Lau hilabete iraungo dute lanek, eta denbora horretan behin-behineko anbulategia egongo da

Datorren astean modulu batzuk jartzen hasiko dira Atxondoko udaletxe ostean, bertan behin-behineko anbulategia jartzeko. Urrian anbulategi berriko lanak hasiko dira, eta bien bitartean Osakidetza bere zerbitzua behin-behineko anbulategi horretan emango du.

David Cobos Atxondoko alkateak asteon azaldu duenez, udaletxe osteko lorategian egongo da

aldi baterako anbulategi hori, anbulategi zaharra bota eta berria eraikitzen ibiliko diren lau hilabeteetan. Irailean zehar moduluak atontzea aurreikusi dute, eta Osakidetza urrian hasita bertan zerbitzua ematen. Cobosek azaldu duenez, "asmoa zerbitzua ez etetea da; ezin dugu anbulategi barik egon".

Saihesbideko lanak

Abuztuangeldituta egon eta gero, kamioiak Apatia erditik ez pasatzeko bideko lanak irailean jarraituko dituzte. Lurrak egonkortzeko gelditu zituzten lanak, eta orain hasiko dira asfaltatzen eta bidea amaitzen. Lanok azarorako amaitzea gura dute. ■ A.U.

Udaletxe osteko lorategian hasiko dira behin-behineko anbulategia ipintzen

Anbulategi berriko lanak egiten dabiltzan bitartean zerbitzua ez etetea da asmoa

GARAI

Medikua eguenean bueltatuko da

Abuztuaren zehar zerbitzua eten da egon ondoren, datorren eguenean berriro hurreratuko da medikua Garaira, Osakidetza iturriekin jakin eragin dutenaren arabera. Medikuari kontsulta astean birritan egin ahal izango diote berriro ere garaitarrek irailaren 2tik aurrera, euren herrian bertan.

Irailaren 2an berriro martxan izango da zerbitzua, abuztuaren eten ondoren

Eguerdian partean joan ohi da sendagilea herrira, martitzen eta eguenean

Eguerdian –martitzen eta eguenean– izaten da normalean sendagilea Garain. Dena dela, ordutegi horretatik kanpora ere aukera izan ohi dute herritarrek kontsulta egiteko, baina horretarako Berrizera joan behar izaten dute.

Herriko taberna

Bestalde, Herriko Taberna ere itxita dago joan zen uztailaren 31z geroztik; herriko jaiak amaitu zirenetik, hain zuzen ere. Irailaren 1ean, datorren eguaztenean, zabalduko dituzte ostera ere atek. ■ M.O.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Ganeko Etxe

Elizondo z/g, Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Kanpazar Erreategia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko 11 euro

Hemen agertu gura badozu,

DEITU

94 621 79 02

Durangaldean labor

Luis Zengotitabengoak asilo politikoa eskatu du

Luis Zengotitabengoak elorriarra abuztuaren 21ean atxilotu zuten Belgikan, Ostenden, Guardia Zibila eta polizia belgikarrak elkarlanean egindako operazioan. Urtarrilean Portugalen ETArri atzemanda-ko lehergaiz beteriko furgoneta batez lotzen du poliziak. Elorriarra Brujasen dago preso; epaileak gaur erabaki behar du Espainiaratu egingo duen ala ez. Asilo politikoa eskatu berri du elorriarrak.

Arratsaldez atek zabalik

Atxondoko Gaztetxeko tabernak arratsaldez atek zabalik ditu abuztu amaierako egunotan. Asteleheneetik barikura, 16:00etatik 20:00etarako ordu-tegian, bertatik pasatzeko gonbitea luzatu die herritarrei Gazte Asanbladak.



Dantza ikastaroetarako izena emateko epea hasita

Elorrioko Udalak kurtso honetarako ere prestatu ditu dantza ikastaroak. Aurtengo nobedade nagusi legez, irailaren 20tik 24ra dantzak doan probatu ahal izango dira, aukeraketa errazteko asmoz. Irailaren 25a da izena emateko azkeneko eguna, eta kopuruaren arabera, 28an adieraziko dute ikastaroa burutuko den ala ez. Sabel dantza, sevillanaka, Karibeko dantzak, areto dantzak eta koreografia modernoak izango dira aukeran. Eguazten, eguen eta zapatuetan eman- gogotuzte ikastaroak.

ELORRIO

Jaurlaritzaren baietza bakarrik falta zaio Plan Orokorriari

Udalbatzarrek Hiri Antomendurako Plan Orokorra onartu du; Ezker Abertzaleak, EAJK eta PSE-EEK alde bozkatu zuten eta EHAK kontra

Abuztuan deitutako udalbatzarrean ia baietzko osoa jaso zuen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra. Ezker Abertzaleak, EAJK eta PSE-EEK baietz bozkatu zuten eta EHAK kontra. Orain, datorren zortzi urteetako Elorrioren hazkundearen nondik norakoak definitzen dituen dokumentua Eusko Jaurlaritzara bidali dute. Hiru hilabeteko epean jakinaraziko diete planagaz ados dauden, eta horrela bada urtea amaitu aurretik onartuko dute behin betirako.

Antolamendu planari aurkeztutako alegazioen "%40 hartu dugu aintzat osotasunean edo partzialki"

EAJK eta PSE-EEK ere plana Elorrioren etorkizunerako onuragarria dela azaldu zuten

Niko Moreno alkatea pozik agertu da planaren onarpenagaz, "legegintzaldi hasieran hartutako konpromisoa bete dugulako eta herriarentzako onuragarria den plana onartu dugulako". Morenoren esanetan, "planari aurkeztutako alegazioen "%40 hartu dugu aintzat, bere osotasunean edo partzialki". Planak, besteak beste, 429 etxebizitza eraikitzea jasotzen du azken zuzenketen ondoren kopurua "apur bat" jaitsiko den arren; eraikitako bizilekuen %65 babes ofizialekoa izango da.



Datozen zortzi urteetako Elorrioren garapena zehazten du planak. Kepa Aginako

ZALDIBAR

Western txapelketak aurten ere

Iazko esperientziari jarraituta, aurten ere Euskal Western elkar-teak Zaldibarrera ekarriko du zaldi gaineko ikuskizuna. Irailaren 11n eta 12an jokatuko dira probak, lau modalitatetan bereiztuta. Trebezia erakusteko zein gauda gobernatzeko ariketak egin beharko dituzte parte-hartzaileek.

Irailaren 11n eta 12an jokatuko dira probak, lau modalitatetan bereiztuta

Euskadiko western estaltze finala ospatuko dute alde bate-tik, eta Katalunia eta Euskadiko taldeak federazio kopa irabazteagatik lehiatuko dira. Txapelketek gainera, egitaraua osatzeko, antolatzaileek afaria eta country musika kontzertua ere eratu dituzte irailaren 11rako.

Euskal Western elkar-teak urtebete pasatxoko ibilbidea egin du, eta tartean Durangaldeko kideak ere badaude. Iazko edizioa, hain zuzen ere, elkar-tearen aurkezpena egiteko aprobetxatu zuten. ■ M.O.

EAJko zinegotzi Ana Otadui "legegintzaldiko erabakirik garrantzitsuen" legez definitu zuen planaren onarpena: "akordiora iristeko denok malgutasunez jokatu dugula pentsatzen dugu. Ez gaudu planagaz erabat konforme, baina, oro har, Elorriok aurrera egin dezan plan ona da eta erantzukizunez jokatu dugu". PSE-EEK zinegotzi Mari Carmen Muñozek ere herriaren etorkizunerako plan egokia dela azaldu zuen.

Protesta ekitaldia

Udalbatzarra abuztuan izango zela jakitean, hainbat auzotako herritarrek protesta ekitaldia gauzatu zuten udaletxe aurrean; era berean udaletxean idatzi bat aurkeztu zuten, 640 sinaduragaz lagundu-

Hainbat herritarrek salatu zuten, udalbatzarra abuztuan egitea "herritarren parte-hartzearen kontra" doa

ta, udalbatzarra atzeratu zedin eskatuz. Horrelako erabakiak "herritarren parte-hartzearen kontrakoak" direla salatu zuen idatziak.

Niko Morenoren ustez, "prozesu osoan herritarrek informazio eskura izan dute beti Udaletxean; udalbatzarra atzeratzea arduragabekeria izango zen". ■ J.D.

San Agustin auzoa jaietan murgilduko da asteburuan

Txopoa jasota hasiko dituzte jaiak gaur; bihar auzo bazkaria eta Luhartzekin erromeria daude

Gaur eta bihar San Agustin auzoko jaiak ospatuko dituzte. Jaiei gaur, 18:00etan, emango diete hasiera txopoa goratzen dutenean. Ondoren, ginkana herrikoia egingo dute. Umeentzako

Zapatu arratsaldean umeentzako jolasak daude, eta ondoren Zaki magoaren magia erakustaldia

molto lasterketa ere egongo da. Egunari trikitilariekin eta auzo afarian emango diete errematea.

Zapatuan, eguerdiko meza- ren ondoren, Betsaide dantza taldeak saioa eskainiko du. Ondoren, auzo bazkarian batuko dira. Bazkalostean mus txapelketari ekingo diote, 17:00etan umeentzako jolasei eta 18:00etan Zaki magoaren magia erakustaldiari. Azkenik, Luhartzekin doinuek alaituko dute iluntzea. ■ J.D.

MOMOTXO TABERNA
Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85

Arrike
Liburudenda
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

BERBAZ >

“Dokumental asko ikusi arren, Indiara joan barik ezin daiteke hangoa imajinatu”

Lau urte daramatza Indian Alberto Casadok. Beragaz egon gara etxera, Traña-Matienara, egin duen bisitan.

Indiako gazetaz berba egitean, Alberto Casado abade abadiñarrak ez du irribarrerik ahotik kentzen. Indiarrek ere horrela berba egiten dutela dio, beti irribarrez. Hango kolore, usain eta soinuez sorginduta bizi da Casado, eta Euskal Herrira etortzerakoan bertan bizitakoa azaltzen ahalegintzen da, nahiz eta badakien bertara joan ezean ezin daitekela “aparteko mundu hura” imajinatu.

Zelan gogoratzen duzu Indiara heldu zinen lehenengo aldia?

Beroa izan zen hegazkinetik irtenda harritu ninduen lehenengo gauza. Aireportuan maleta galdu genuen, eta orduan konturatu ginen indiarrek keinu bereziak dituztela. Adibidez, baietz esateko, guk buruagaz ezetz esaten dugunean egiten dugun antzeko mugimendua egiten dute. Aireportuan, maleta aurkitzeko laguntza eskatzeko keinu hori egiten ziguten. Gu harrituta geunden; ez zigutela lagundu gura pentsatu genuen! Apurka-apurka konturatzen hasi nintzen India ez dela beste herrialde soil bat: Dena da desberdina; kultura, ohiturak... beste mundu bat da.

Ohitu zara mundu horretara?

Batzuetan ez naiz konturatzen, baina bai, ohitu naiz jendetzara, zaratara eta ordenarik ezera. Lagunak bisitan etorri eta galdezka hasten direnean, orduan konturatzen naiz nik ere hasieran galdera berak egiten nituela, eta jadanik ohitu naizela bertako kulturara.

Keralan bizi zara. Zelako lekua da?

Hegomendebaldean dago, kostaldean, eta bertako klima tropikala da. Jende gehiena arrantzatik bizi da. Arbola artean bizi dira, arbolen babesean. Eurek Keralari Jainkoaren Lurra deitzen diote; jainkoa biziko litzatekeen lurra. Egia esan, Indiako paisaiarik politenetakoak ditu.

Indonesiako tsunamiak kalteak eragin zituen inguru horretan.

Jende asko hil zen, eta etxeak eta arrantzaleen barkuak suntsitu zituen tsunamiak. Gero, gainera, euri garaietan epidemiak zabaldu



“Ikasketekin jarraitzeko ingelesa eta beste zenbait gai irakasten dizkiegu gaztetxoei. Kooperazio munduan sarri ahaztuta egoten dira nerabeak”

ziren. Arrantzaleei asko eragin die tsunamiak: arrainak urrundu dira eta ekosistema aldatu da; asko kostatzen zaie arrantzatzea. Arrantzale horien semeekin egiten dugu lan.

Hezkuntza alorrean.

Bai. Nerabeekin egiten dugu beharra. Kooperazio munduan umeekin asko egiten da lan, baina gaztetxoek

sektorea ahaztu egiten da sarritan. Ingelesa irakasten diegu, eta beste hainbat gaitan ere prestatzen ditugu, gero ikasketekin jarraitzeko edo askotan lanerako behar den hizkuntza behintzat jakiteko. Urtebeteko ikasketak eskaintzen ditugu, eta gero goi-ikasketak egiteko beste eskola batera joaten direnean gurekin bizitzen jarraitzen dute.

Alberto Casado •
Kooperantea Indian

- 33 urteko abadiñarra
- Lau urte daramatza Indian, Maitasun Errukitsuaren Kongregazioagaz lanean

Beste proiektu baten ere bazabiltzate lanean, etxe bako emakumeekin.

Aterpe bat eraikitzen hasi gara eurentzako. Jende asko etortzen zaigu premia handiekin, eskean, eta asko umeen ardura daukaten andreak dira. Politikoen aldetik oztopo batzuk izan ditugu, baina bagabiltza lanean gauzak konpondu eta etxea eraikitzen jarraitzeko.

Zer beharrian gehiago ikusten dituzu?

Osasun-laguntzaren kontua hor dago. Gugaz dauden mojek zer edo zer egiten dute, baina oso mugatuta dago laguntza hori. Medikuak, erizainak, botikak... ekartzen ahalegintzen dira, eta jendearen diru-laguntzen menpe daude. Gaixotasun larrien kasuan hiri handietara eta diruagaz joan behar da, eta gure inguruko jendeak ezin du hori egin.

Zelakoa izaten da etxerako itzulera?

Hona natorrenean jendeari India zer den azaltzen ahalegintzen naiz. Esaten didate telebistan ikusi dutela zer edo zer, dokumentalen bat... baina asko azaldu arren, bertara joan ezean ezin duzu irudikatu zer den India. India kolorea da, soinuak dira, usainak dira... eta hori dena jendeari azaltzea ezinezkoa da. Diotenez, kriketa eta zinea dira indiarren pasioak. Eta egia da. Han zinemara joatea itzela da. Berba egiten dute zinema aretoan, dantza aktoreekin batera, txalo... beste mundu bat da. Indian bizi dudan guztia transmititu gura izaten dut hemen, baina gaitza da. ■ A.Ugalde

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug:658 75 72 79

BILBAO ASEGURUAK | Grupo CATALANA OCCIDENTE
Jabier Rueda
Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77


EDERTASUN GIDA

Ileapaindegiak



NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelúkerianukleo
Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96



- Ana Camarero
- Apaindegia dauka Durangon

Argan-olioa

Herrialde askotan oso ezagun den argan-olioa erabiltzen dihardu Ana Camarero. Produktu sorta zabala eskura dugu.

Nondik dator argan-olioa?

Argan-olioa Marokon bakarrik hazten den arbola batetik atera daiteke. Bere ezaugarriengatik, urre likidoa deitzen dioten olio bakarra da.

Zer ezaugarri ditu olio horrek?

Erabilera terapeutiko eta kosmetikoa du. E bitamina, azido oleiko eta azido linoleiko kopuru handia dauka.

Zein efektu izaten du?

Gaztetzeko, azala birsortzeko efektua; eguzkiaren erredurak, neurodermitis, soriasis zaintzeko; leundu, hidratatu eta distira eta malgutasuna emateko... Azazkalak berregituratu eta indartzen ditu. Ilea indartzen laguntzen du. Berehala azalean barneratzen da, hidratatuta eta koipeztatu barik utzita.

Zer maiztasunegaz ematen da?

Egunero eman daiteke azazkal, aurpegi, gorputz eta ilean.

Zer motatako argan-olioa da zuek erabiltzen duzuen?

Argan-olio hutsa 50 l.
Ile babesle eta hidratatzailea 100 ml.
Argan balsamoa 30 ml.
Gaztetzeko hidratatzailea 50 ml.
Maskara garbitzailea 75 ml.
Argan xaboi hidratatzailea.



ZUTOIA
ileapaindegia

- Tratamendu kapilarrak
- Estentsioak
- Unisex
- Solarium bertikala

ORDUTEGIAK: asteartea-barikua: 9:00-19:00 • zapatua 7:30-14:30
Ambrosio Meabe, 2 • Tel.: 94 621 82 18



iunik
ileapaindegia

asteleheneak
asteazkenea
10:00-21:00

osteguna
eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

Estetika Zentroak



Parafarmazia Dietetika
Amalia

- Drenatze linfatikoa
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Antso Estegiz Zumardia • 1zk. behea • Durango • 94 681 81 96



Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIO -beroa eta epela •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



Virginia Ansorena
• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekainen diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izerrondo eta besapetako fotodepilazioan

San Agustinalde, 1ªA-1ºC, 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 665 716 017



Ana Camarero
• apaindegia •

LASER
FOTODEPILAZIO
MEDIKU-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari berok depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

KULTURA

MUSIKA > DISKO BERRIA

Disorders kanta berriak zuzenean jo eta ezagutarazteko gogotsu

Euren herrian, Zaldibarren, eta euren berbetan, "gure jendearen aurrean", aurkeztuko du **Disorders** taldeak bigarren diskoa. 'Hitzak' izenagaz abuztuan kaleratu duten diskoan jaso dituzten kantak zuzenean aurkezteko egingo duten biraren hasiera, irailaren 3an, Zaldibarko Gaztetxean daukate bost musikariek. Taldekide bigaz batu gara, Zaldibarren daukaten entsegu lokalean



Ion Olabarriaga

Zenbat ale plazaratu dituzue? Mila kopia atera ditugu; asko, egia esan. Aurreko diskoagaz, lehenengo 500 atera genituen, eta denak saldu zirenez, beste horrenbeste atera genituen gero. Oraingoan, pentsaturik garestiagoa dela bi tiradatan kaleratzea, hasieratik 1.000 egin ditugu. Aurrekoan 700 disko inguru saldu genituen.

Zortzi urte, bigarren diskoa, eta taldekide berberak. Zelan lortu duzue irautea?

Horretan, egia esan, zorte oso handia eduki dugu: Zaldibar herri txikia da, eta denok inguru berean mugitzen gara. Sekula ez dugu ezelako arazorik izan, beti egin dugu aurrera, eta horrela daramatzagu elkarregaz zortzi urte.

'Hitzak' izena dauka diskoak. Berbek pisu handiagoa daukate disko berrian?

Beti eman diegu garrantzia handia letrei, gure mezua berben bitartez zabaltzen dugulako, nahiz eta musikak ere transmitzen dituen

“Bi kenduta, beste kanta denak aurten sortutakoak dira”

ideiak. *Hitzak* diskoko kanta baten izena da berez, baina diskoaren izenerako aproposa iruditu zitzaigun, eta horrela ipini genion.

Eta zer dio 'Hitzak'?

Zentsurari buruzkoa da: komunikabideetan, musikan... Hainbat esparrutan bizi dugun zentsurari buruzkoa da. Erritmo nahiko bizkorreko kanta da.

Zelakoak dira hamar kanta berriak doinuei dagokionez?

Denetarik dago; batzuk lasaia-goak, beste batzuk bizkorragoak, batzuk *rock & rolleroagoak*, beste batzuk *hardcoreagoak*... Ez gara estilo zehatz batera mugatzen.

'Hitzak' diskoko kantak sortzeko, kontzerturik eskaini barik egon zarete hilabeteetan...

Bai, kanta bi kenduta —aurretik sortuak genituen—, beste kantak abendutik hona sortu ditugu. Abenduan utzi genituen kontzertuak, eta diskorako kantak sortu eta grabatzeari ekin diegu burubelarri. Lehenengo aldia izan da horrela egin duguna lan: orain arte egin dugunik landuena da.

Zerk bultzatu zaituzte bigarren diskoa grabatzera?

Kanta berriak sortzeko modua izan da, gure burua berritzeko modua... Urte askoan egon gara

Abendutik hona kontzerturik eskaini barik egon dira

“Gure burua berritzeko modu bat izan da kanta hauek sortzea”

“Beti egin dugu aurrera, eta horrela daramatzagu zortzi urte elkarregaz”

kontzertuetan kanta berak eskaintzen, eta gogoa geneukan gauza berriak sortzeko.

Gaitza egin zaizue kontzerturik eskaini barik egotea?

Apur bat bai, egia esan: eskaintza asko egin dizkigute, eta ezetz esan behar izan dugu. Baina disko berrian gura izan dugu kontzertu hilabeteotan. Astean hiru bider batu gara entseguetara, asko landu ditugu kantak.

Diskoa Zaldibarren aurkeztea berezia izango da, nahiz eta askotan jo duzuen herrian...

Dozena bat kontzertu eskaini ditugu Zaldibarren; gure lehenengo kontzertua gaztetxe zaharrean eskaini genuen, frontoian ere jo izan dugu... Baina beti da berezia herrian jotzea, eta horregatik, gure jendearentzat egin gura izan dugu diskoaren aurkezpena.

Entsegu lokalean zenbat talde elkartzan zarete gaur egun?

Orain hiru-lau urte baino talde gutxiago dago gaur egun: Ostikada taldeak eta geuk erabiltzen dugu lokala azken aldian. Lehen entsegurako ordu libre bat topatzea gaitza izaten zen, baina orain talde gutxiago dabil. Lokalaren goiko solairua laga digu udalak orain, eta bigarren lokal moduan erabiltzeko prestatzen gabilta.

Punka eta txalaparta uztartzen dituzue disko honetan ere?

Aurreko diskoan sartu genuen. Txalaparta hain erritmikoa izanda, zaila da uztarketa egitea... Disko honetan ezin izan dugu azkenean txalapartarik sartu, baina itxaroten dugu txalapartarien kolaborazioa izatea aurn.

Hamar kantaz osatutako diskoa da Disorders-en 'Hitzak'

“Berezia da beti gure jendearen aurrean, gure herrian jotzea”

Zelangoratzten dituzue 16 urte-gaz lokalean batu eta instrumentuak lehenengoz esku artean hartu zenituzten garaiak?

Jende asko ibiltzen zen hemen, eta beti zegoen lokalean bere instrumentua probatzen uzten zizun norbait. Eta horrela, elkarregaz hasi ginen bakoitza bere instrumentua ezagutzen, bertsioak egiten lehenengo, eta gure kantak sortzen ondoren. ■ I.E.

ARGAZKILARITZA > ERAKUSKETA



Zuri-beltzeko gizarte argazkilaritza Museoan

Irailean arte dago Gabriel Cualladó argazkilarari valentziarraren lanaren erakusketa Durangoko Arte eta Historia Museoan ikusgai

Gabriel Cualladó (1925-2003) argazkilarari valentziarraren zuri-beltzeko lanen bilduma dugu abuztuaren amaierara arte Durangoko Arte eta Historia museoan ikusgai. Bere bizitzako hainbat sasoitan, denbora librean eta oporetan hartutako argazkiak dira Cualladóren lanaren Durangoko erakusketan batuta daudenak, argazkilarari valentziarrak sekula ez zuen eta argazkigintza ogibide izan. Argazkiak egitea "afizio" izan zuen arren, Espainiako Argazkilaritza Sari Nazionala jaso zuen 1994an Gabriel Cualladó, bere bizitzan zehar egindako lana gorai patuz.

Zuri-beltzeko argazkiak, gehienetan pertsona bakarra erakusten dutenak dira Arte eta Historia Museoan erakusketan daudenak; kaleko pertsona anonimoak dira Cualladóren argazkien jomuga; sekula ez aurpegi ezagunak. Libre uzten ditu kameraren aurrean protagonistak Cualladó, diren bezala agertzeko.

Eguneroko paisaiak begiratzeko modu simple, zuzen eta zintzoa islatzen dute Durangoko Museoko hormetan zintzilikatutako argazkiek. Inguratzen zuena begi-

ratu eta ikusten zuena ulertzeko saiakera zen Gabriel Cualladó valentziarraren argazkigintzaren ardatza. Izan ere, errealtatearen isla hutsa barik, berau interpretatzeko modu bezala ulertzen zuen egileak argazkilaritza.

Madrilen, Massanassa bere jaioterrian, Asturiasen zein Parisen egindako argazkiak dira irailera arte Durangon ikusgai ditugunak: Madrilgo Atocha tren-gel tokiko eta feriako paisaiak, taberna bat, bere amaren erretratua edo autoerretratua ditugu, besteak beste, ikusgai. ■ I.E.

Espainiako Argazkilaritza Sari Nazionala jaso zuen 1994an Gabriel Cualladó

Inguratzen zuena begiratu eta ikusten zuena ulertzeko asmoz egindako argazkiak



MUSIKA > EMANALDIAK

Manowar, Alice Cooper eta Motorhead entzungai Landakon

Irailean, azaroan eta abenduan datoz musikan esperientzia luzea duten hiru taldeak Durangoko Landako erakustazokan jotzera

Durango aukeratu du RockNRock promotorek ikasturte hasiera honetan hainbat kontzertu ospatzeko. Bartzelona, Madril eta Durangon zuzenekoak eskaintzera datoz irailan, azaroan eta abenduan nazioarteko rockaren izen handienetakoak diren hiru talde. Durangon, Landako erakustazokan izango dira Manowar, Alice Cooper eta Motorhead taldeak.

New Yorkeko Manowar taldea izango da Landakon lehenengo gonbidatua: irailaren 10ean joko du Durangon heavyaren nazioarteko eszenan 30 urte daramatzan laukoteak. Madrilen hurrengo egunean eskainiko duten kontzerturako dagoeneko agortu dira sarrerak, baina Durango eta

Bartzelonako emanaldietarako badago oraindik sarrera lortzeko modurik: 36 euroan daude salgai. Azaroaren 22an, berriz, *Alice Does Alice* disko berria aurkeztera etorriko da Alice Cooper taldea, eta Motorhead talde mitikoa izango dugu abenduaren 16an Landako erakustazokan, amaitzeko. ■ I.E.

Irailearen 10ean da lehenengo hitzordua: New York-eko Manowar taldeak joko du

ARGAZKIGINTZA >

Zaldibarko Argazki Rallyan sarituak

Uztailaren 4an ospatu zuten Zaldibarren II. argazki taldeak antolatzen duen XXVII. Argazki Rallya. Uztail amaieran eman zituzten irabazleen izenak jakitera. Roberto Madariaga zaldibartarrak jaso zuen lehiaketaren 125 euroko lehenengo saria. Bigarren Sergio Dosantos mutrikuarrak egin zuen, eta Aitor Rementeria elgoibartarrak eraman zuen lehiaketako hirugarren saria.

Zaldibarko Argazki Rallyko parte-hartzaile gazteen saria Haizea Madariaga zaldibartarrari eman zion epaimahaiak, eta Felix Perezek jaso zuen, bestalde, zaldibartarrak onenaren saria. Azpimarratzekoa da aurtengo lehiaketan ere herriko parte-hartzaileen kopurua: guztira, 34 argazkizalek hartu zuten uztaileko lehiaketan parte, eta horietatik 26 zaldibartarrak izan ziren. Lehiaketak herrian duen onarpenaren erakusgarri da hainbeste herritarren parte-hartzea. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Arantza Arrazola San Agustineko programatzailea

Futbolaren inbidiaz?

Uztailean ia denok berba egin dugu behin edo behin futbolaz, ... Hala, ofizio lagun batekin akordatu naiz, kirol kazetariaren berbaro-kantariaz, futbola eta teatroa alderatuz gogoetarako itzeleko gaia plazaratu zuelako: imajina dezagun zelakoa zatekeen antzerkiaren egoera komunikabideek futbolari adina arreta eskainiko balio; albistegiak zabaltzeko aktore printzipalerako *fixaxeak* kobratu duena jakingo genuke; entseatzen eta kamerinoan makilatzen ikusiko genuke; teknikariak joko-zelaia argiz eta eszenografiatzen azalduko liriteke... Izan ere, beste edozein sektorek futbolak adina arreta jasoko balu, haren neurriko babes izango lukeela uste dut.

Baina, badago futbolarekiko inbidia isiotzen didanik: futbolearen argi dago bakoitzak zer maila, talde eta zelaitan jokatzen duen. Argi 1. maila bada edo *segunda regionala*. Eta hala, zaleak bakoitzari horren arabera eskatzen dio. Honatx nire bekaizkeria sortzen duena: antzerkian profesional zein amateurrek zelai berberetan jokatzen dute, ez dago hasi berrientzako hareazko zelairik, edo lagun arteko partidatarako eskolapatorik. Nahaste-borraste honek ikusleak endredatzen dituelakoan nago: nor da amateur eta nor profesionala? Zer espero eta zenbat eskatu bakoitzari? Katramila hau kultura politika irmo batekin bakarrik arteztu dezakeela uste dut.

Izan ere, ez al da triste aktoreei sarri egiten zaien galdera: "Posible al da antzerkitik bizitzea?" Futbolari profesionalak bezala, konpainia profesionaleko aktoreak, bai, batez ere, kultura interesaren mesedetan babes publikoa jasotzen badute... Alegia, futbolearen bezala.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

IRAILAK 3 22:00etan
XII. GAU ELEKTRONIKOA
OPENING PARTY.
Sarrera: 8euro (5+flyer).

IRAILAK 10 22:00etan
BERTAN BERA + LAIN
KONTZERTUA. Sarrera: 5euro.

IRAILAK 11 22:00etan
KUDAI+HIRA+AIJUMEN BASOA
KONTZERTUA. Sarrera: 5euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatara
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

irailean

DENBORALDI

berria!

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11-94 601 07 76

Irailak 3 - 12

FERIXA 2010 NAUSIKOAK

Elorrio



ELORRIOKO AUKERA AZOKA HERRIKO PLAZAN

irailaren 3an
09:00etatik 20:00etara



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA



K. Aginako

Badago zer aukeratu azokan

Aurten XXVII. aldia beteko du Elorrioko Abere eta Nekazaritza Azokak. Ohiko legez, deneriko produktuen erakusleihu bihurtuko da Ferialekua. Abereei dagokionez, nobedade bat dago: urtero etorri ohi zen abeltzain bat ez da etorriko, eta haren tokia hartuko duen baserritar elorriarrak dozena bat txerri eta kapoiak erakutsiko ditu. Beraz, inoiz baino abere eskaintza zabalagoa egongo da aurten.

Guztira, nekazaritzari dagozkion 66 stand ipiniko dituzte; urtero egon ohi den kopurua, gutxi gorabehera. Jatorriari dagokionez, stand gehienak Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritako nekazari edo artisauek ipiniko dituzte. Horietako hainbat Durangaldekoak dira; Elorrio, Iurreta, Abadiño eta Otxandiokoak, besteak beste. Gipuzkoak ere ordezkari zabalago izango du; esaterako, Bergara, Arrasate eta Usurbiletik etorriko dira euren produktuak erakutsi eta saldu guran. Arabako postu bat ere egongo da; Laudiokoa, hain zuzen ere. Aurtengo aldian Nafarroako ordezkariarik ez da izango.

Ikusi zein erosi ahalko diren produktuen artean eskaintza zabalagoa da. Ohiko fruitu, barazki,

Abereei dagokionez, behiez gainera txerriak eta kapoiak ere egongo dira aurten

Nekazal produktuen 69 stand atonduko dituzte; Gipuzkoa eta Bizkaikoak gehienak

gazta, ogi, txakolin eta sagardo eskaintzaz gainera, produktu bitxiagoak ere jasoko ditu azokak: eskuz marraztutako kamisetak, eskuz egindako makilak, mota guztietako artisautea, larruz landutako produktuak, lore sikuak...

Durangaldeko abeltzainak

Abereen eskaintza Durangaldeko baserritarrek osatuko dute: hain zuzen ere, Elorrio, Iurreta, Atxondo, Abadiño eta Berrizko baserritarren abereak izango dira ikusgai. Guztira, 29 abeltzain egongo dira Ferialekuko luze-zabalean kokatuta. Ohi duten legez, hainbat arraza ekarriko dituzte: pirineaikak, blondeak, mestizoak...

Sarreran aurreratu dugun moduan, txerriek eta kapoiek behiek azokan izan ohi duten monopolioa apurtuko dute aurten.

Tradizio zabalagoa duen azoka hori jaietako hitzordu garrantzitsuenetakoa izaten da Ferixa Nausiko jaietan, eta antolatzaileen helburua jai-giroa bertara zabaltzea ere bada. Horregatik, egun horretan azoka baserritar jantzita bisitatzeke eskaera egin dute antolatzaileek.



Elorrioko Udala

irailaren 3tik 12ra

IRAILAK 3, Barikua

- 11:00-13:00• Herriko plazan: Globoflexia. Umeentzako. EME
- 17:30-19:00• Herriko plazan: Bitsaren jaia. Zatoz bainujantzi eta txankletekin. EME
- 19:00• Plazako frontoian: Pilota partidak. Berrio-Otxoa Pilota Eskola
- 23:00• Txosnagunean: kontzertua GHETO + PURO CHILE + RAIMUNDO AMADOR

IRAILAK 4, Zapatua

- 11:30/17:00• Jolas-parkea. Arriola kalean (ume txikiak), Urarkan (umeak), Frontoian (gaztetxoak)
- 19:00• Auzoetatik plazara: Txaranga. Los Pasai (Kulotxa), Ardoa Barrura (G.Begoña), El Despiste (Berrio-Otxoa)
- 19:00• Herriko plazan: Buruhandiak eta erraldoiak. Ondalan Konpartsa
- 20:00• Herriko plazan: Txupinazoa (Mailaz igo den futbol taldeko jokalariek eta teknikariak). Entzerru txikia.
- 23:00• Herriko plazan: Danborrada
- 23:00• Urarkan: DJ (60-70-80-90 hamarkadak).



Futbol jokalariek txupinazorako prest

Herriko kirol taldeek egitarauan zeresana eduki dabe

El orriko futbol taldeko lehenengo taldeak goren mailan jokatuko du denboraldi honetan. Iurrettagaz igoera bereganatzeko bigarren postua lehiatu zuten elorriarrek, eta denboraldia amaitzeko bi jardunaldi falta zirenean igoera matematikoa eskuratu zuten. Jokalarien ahalegina saritu guran, herriko jaietan futbolariak txupinazoa jaurtitzea erabaki du udalak.

Elorriko futbol taldeko lehenengo taldeko jokalariek txupinazoa jaurtiko dute jaiei hasiera ofiziala emateko

Elorriok bi urtean bigarren mailako txapelduna izan eta lehenengo mailako bigarren postua eskuratuz goren mailarako igoera eskuratu du. Taldeak pozik hartu du albistea. Protagonismoa jokalarien esku utziko dutela azaldu digu Javier Agirre taldeko presidentek.

Gaineratu duenez, jaien hasieran esango dituzten berbak futbolariak erabakiko dituzte. Elorriko lehenengo taldean 25 jokalarik goren mailari aurre egingo badiote ere, beste mailatakoekin batera 125 jokalarik dihardute. Dagoeneko entrenatzeari ekin diote. Taldea bere horretan mantenduko duten arren, denboraldi berrirako jubenetako bi jokalariek hartuko dituzte. Elgoibarren jokatzen ibili den Munitis eta Berrizen jardun duen Eguren fitxatu dituzte taldea indartzeko. Angel Diaz de Cerioren mutilen kategorian egonkortu eta postu on bat eskuratzea dute helburu. Oinarri ona dutela diote elorriarrek.

Denboraldiko lehenengo partidua irailaren 18an jokatuko dute. Jaietan, baina, irailaren 7an, Bilbao Athleticen kontra lagunarteko partiduan lehiatuko dira. Partiduan batutako dirua Kainaberak Ciudad Bolivarren (Kolonbia) baztertuta bizi diren eta premia bereziak dituzten umeentzako erreabilitazio proiektura bideratuko dute.

ONTRACK HIZKUNTZA ZERBITZUAK

INGELESEKO AKADEMIA BERRIA ELORRION
2010-2011 IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK

946 58 46 73 BERRIO-OTXOA 18, ELORRIO
WWW.ONTRACKENGLISH.COM

Argiñeta
zure konfiantzazko inbiliaria

ARGIÑETAK JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!

Urarka, 1 • Elorrio • Tel: 94 682 00 41 • Fax: 94 623 16 30
argineta@euskalnet.net • www.argineta.net

Ferixa Nausikoak 2010



PARRA taberna

parra@parrataberna.com www.parrataberna.com

CAFETERIA
IRISARRI
"Enri"

Tel.: 94 658 31 19 Elorrio (Bizkaia)



PORTALEKUA

**EUSKAL PRESOAK
PORTALEKURA**

gari taberna

**PINTXOAK ETA
BOKATAK**

Tel.: 94 658 29 33

esteibarlanda 6



XNR taberna

GOSARIAK - PINTXOAK - BOKATAK

BERGISTOAK 43, 48230 ELORRIO - TEL.94 658 34 65



FRONTIS
BAR

Pintxoak · Bokatak · Iberikoen razioak

Tel. 94 658 30 39
Erreka kalea 2
Elorrio BIZKAIA

busti zaituz jaixetan!

Belarriak ondo gozatzeko moduan

Txosnetan, Gaztetxean, Urarkan, plazan, auzoetatik plazarako kalejiretan... zabala da musika eskaintza

- 00:00• Kalejira
- 00:15• Urarkan: Berbena, Gure bizitzako kantak eta balleta.
- 01:00• Gaztetxean: Kontzertuak: KAÑERIA 13 + DISORDERS.

IRAILAK 5, Domeka
Ferixa Eguna

- 10:00• Feriagunean: XXVII. Abere eta Nekazaritza Azoka. Animatu eta zatoz baserritar jantzita!
- 17:30• H.Azkarate frontoian: Esku pilota partiduak. Berrio-Otxoa Pilota Eskola.
- 18:30• Herriko plazan: Munduko dantzak eta musikak. SBANDERATORI (Italia). Kalejira.
- 19:30• Aldatzekuan: Bilbainadak eta Habanerak. GAUPASA taldea.
- 20:00• Mariachi-ak kalerik kale
- 22:30• Herriko plazan: Suzko zezena. Errugbi taldea
- MARIATXIEN GAUA:**
- 23:00• Plaza/Elizpea: Noche Mariachi



Musika indartsuagaz datoz Ferixa Nausikoak. Elorrio eta ingurueta herrietako musikariak ikusteko aukera egongo da txosnetan eta Gaztetxean, eta baita apur bat urrunagotik etorritako musikari bat ere; Raimundo Amador sevillarrak kontzertua eskainiko du jaien lehen egunean, barikuan.

Amador Sevillako ijitoak telonero bi izango ditu, 22:00etatik aurrera: Ghetto eta Puro Chile. Durangaldeko musikariz osotutako bi talde horiek musika modak jarraitu barik egi-

ten dutela diote. Puro Chileren kasuan, izenak berak azaltzen du euren filosofia. Gauzak *puro chile* erara egiteak intuizioz jokatzea esan gura du, eta taldekideek euren musika horrelakoa dela diote: barrutik irtendakoa.

Euren ondoren, Raimundo Amadorren txanda izango da, gaueko izar handienarena. Flamenkoaren sustraietatik abiatuta etorriko zaigu Amador rock eta blues doinuekin.

Txosnetan, koadrilen egunean Trikizio taldeak eskainiko du erromeria, eta bigarren zapatuan izango dira azken kontzertuak; Arkada Social eta Des-kontrol taldeek punk-rock doinuak ekarriko dituzte Elorriona.

Gaztetxeko musika

Txupinazo egunerako, hilaren 4rako, inguruko herrietako punk-rock taldeak gonbidatu ditu

Txosnetan Raimundo Amador, Durangaldeko hainbat talde eta punk-rock doinuak entzuteko aukera egongo da



• TEORIKOA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Atera ezazu teorikoa 5 egunetan, %99k gainditzen du.

• CAP ikastaroak profesionalentzat

• Teoriko orokorra euskaraz ONLINE

HEMEN GAUDE:

Urarka kalea, 20 • Tel.: 94 658 34 41 • ELORRIO

Elorrioko Gaztetxeak. Arrasateko Kañeria 13 eta Zaldibarko Disorders taldeen eskainiko dute kontzertua. Zaldibartarrek *Hitzak* izeneko euren bigarren diskoa aurkeztuko dute.

Eguena tradizioz Elorrioko rock taldeen eguna izaten da jaietan, eta aurten ere horrela izango da. Gaztetxean eskainiko dituzte kontzertuak, 20:00etatik aurrera.

Barikuan, hilaren 10ean, azken kontzertua esakiniko dute Gaztetxean; Bartzelonatik etorriko da Bottle Duck taldea. Rock and rolla egiten dute, eta publikoagaz oso zuzenak dira euren kontzertuetan.

Txarangekin, txupinazora

Kaleko jai-giroa ikustera irtenez gero, ia egunero egongo da musika edo dantza ekitaldiren bat kalean. Txupinazo egunean, adibidez, urtero egiten den plazarako jaitsiera desberdina izango da aurten. Hiru txaranga ibiliko dira herrian zehar auzoetatik plazarako ibilbidea egiten. Nabarmentzekoa da azoka egunean Italiako dantza eta musika eskainiko duela Sbanderatori taldeak. Emanaldia eta gero kalejira egingo dute herrian zehar.

Euskal Herriko musikak ere edukiko du bere lekua Ferixa Nausikoetan. Bigarren zapatuko arratsaldean, adibidez, Bentazaharreko Mutilak taldeagaz erromeria egongo da Aldatzekuan, eta gero kantaldi ibiltaria egingo dute herrian zehar. Erromerietako dantzak ikasteko aukera ere egongo da AIKO taldeagaz, martitzenean, eta Erdizka Lauetan taldeagaz, azken domekan, jaiak dantzan amaitzeko indarra daukanarentzat.

Eguenean, urtero legez, Elorrioko rock taldeen txanda izango da, Gaztetxean, 20:00etatik aurrera

Kaleko musika emanaldi asko egongo da; txupinazo egunean auzoetatik plazarako ibilbidea hiru txarangak girotuko dute

Bigarren zapatuan kantaldi ibiltaria egongo da iluntzean, eta gauean, punk-rocka txosnetan



IRAILAK 6, Astelehena Koadrilen Eguna

- 14:00• Aldatzekuan: Koadrilen arteko bazkaria
- 16:30• Aldatzekuan: DJ-ak eta Karaoke lehiaketa
- 17.30• Urarkan: Umeendako ikuskizuna. Deabru beltzak + parranda
- 18:00• Koadrilen jaitsiera. The McKensy's clan band
- 19:00• Herriko plazan: Koadrilen arteko jokoak
- 22:00-23:00• Txosnagunean: Erromeria. TRIKIZIO
- 22:45• Plazan: Suzko zezena. Errugbi taldea
- 23.30• Herriko plazan: Disko festa. ABIBA DISKOFESTA

IRAILAK 7, Martitzena

- 11:30/17:00• Jolas-parkea. Arriola kalean (ume txikiak), Urarkan (umeak), Frontoian (gaztetxoak)
- 18:00• Aldatzekuan: Betiko jokoen olinpiadak. Hoiokoteak, 7 t'erdira,

JUAN BERISTAIN

NEKAZAL TRESNAK



Salmenta
eta
konponketa



HONDA
STIHL®
SAME
BCS
CARON
VIKING

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel-Faxa: 94 623 18 03

igel jokia, bola jokia, petanka eta arku-tiroa.

- 19:00• Herriko plazan: Euskal erronomia. Aiko-Dantza Piko.
- 19:00-19:30• Elizalden: Futbol partidak. C.D. Elorrio.

IRAILAK 8, Eguaztena

- 16:30• Herriko plazan: Umeentzako tailerrak. Txintxirri ikastola.
- 17:30• Herrigunean: Ginkana. Elorrioko Txirindulari Elkarte.
- 18:00• Herriko plazan: Txokolatada. Txintxirri ikastola.
- 18:30• Urarkan: TXAN MAGOA. "Txan Txetan" ikuskizuna.

IRAILAK 9, Eguena

- 19:00• Aldatzekuan: Dantzaldia eta DJ Festa. ARANTZA SHOW.
- 20:00• Gaztetxean: Elorrioko Rock Taldeen kontzertuak.
- 22:00• Probalekuan: XLVII. Idi-proba Txapelketa



K. Aginako

Pilota eta areto futbol partiduak

Azpiri eta Landaburu elorriarrek bikotea osatuko dute

Kirok arloan Elorrio futbol taldeak protagonismo berezia izango du aurtengo Ferixa Nausietan, iaz goren mailara igo zirenez eurek piztuko dute-eta jaiei hasiera emango dien txupinazioa. Ondorengo egunetan, ordea, udaletxeko balkoitik Hilario Azkarate pilotalekura eta kiroldegira tokialdatuko da kirol zaleen arreta. Berrio-Otxoa pilota eskolak eta Buzkantza areto futbol taldeak hainbat partidu antolatu dituzte jaietarako.

Irailaren 11n, 16:00etan hasita, areto futbol derbi bi ikusteko aukera egongo da kiroldegian. Lehenengo neurketan Elorrioko Buzkantza B taldeak Sapuerrriren kontra jokatuko du. Ondoren, talde nagusiak Sasikoa izango du arerio.

Elorriarrek Larrañaga eta Galarraga izango dituzte arerio; aurretik, Elezkano Irureta / Mendizabal Aldape partidua dago

Pilotari dagokionez, irailaren 3an pilota eskolako benjamin eta kimu mailako hiru partidu antolatu dituzte, plazako pilotalekuan, 18:00etatik aurrera. Irailaren 5ean, berriz, gaur egun afizionatu mailan aurkitu daitezkeen pilotaririk onenak izango dira bertan, 17:30etik aurrera. Lehenengo partiduan Elezkanok eta Iruretak Mendizabal eta Aldaperen kontra jokatuko dute. Ondoren, Igor Azpiri eta Jon Landaburu elorriarrek Larrañaga eta Galarraga izango dituzte aurrez aurre.



K.A.



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Berrio-Otxoa kalea, 5 • Tel.: 94 658 27 61
48230 ELORRIO • Bizkaia

Koadrilen Egunean karaoke lehiaketa egingo dute aurten

Koadriletako kamisetak soinean

Goizean goizetik itzarrrik egongo da jende asko koadrilen egunean. Duela hiru urte egindako zenbaketaren arabera, egun horretan 62 koadrila inguru batzen dira bazkaritara, adin guztietakoak. Aurten, 09:00etan hasiko dira Aldatzekuan mahai eta aukiak banatzen. Ordu biak aldera bazkaltzen hasteko ordua jarri dute, eta ohitura denez, paella usaina zabalduko da Aldatzekuan.

Aurtengo bazkalostean berrikuntzak izango dira. DJak eta karaoke lehiaketa antolatu dituzte 16:30 ingururako. Horren ondoren, koadrilak kalejiran jaitsiko dira plazara, The McKensy's Clan Band taldeagaz. Txaranga berezia da hau; musika eskoziarra eta umorea erabiltzen dute kalejiretarako.

Koadrila guztiak plazara heltzerako, 19:00ak inguru izango direla kalkulatu dute. Orduantxe hasiko dira koadrilen arteko joko koloretsuak plazan bertan.

Iluntzean eta gauean erromeria edukiko dute herriko koadrilek, Trikizioren eskutik. Lehenengo emanaldia 20:00etan hasiko du Trikiziok, eta bigarrena afalostean, 23:00ak aldera. 22:45ean plazan suzko zezena egongo da, errugbi taldeak lagunduta, eta gauerdiko bueltan disko festa izango da plazan.

Koadrilen bazkarirako mahai eta aukien banaketa goizeko bederatzietatik aurrera egingo da Aldatzekuan

Duela hiru urteko koadrilen bazkarian 62 koadrila zenbatu zituzten. Adin guztietako jendea batzen da



IRAILAK 10, Barikua

- 11:30/17:00• Jolas-parkea. Arriola kalean (ume txikiak), Urarkan (umeak), Frontoian (gaztetxoak)
- 12:00• Sortzez Garbiaren basilikan, meza hildako jubilatuen oroimenez
- 13:00• Aldatzekuan: Elorrioko jubilatuentzat piskolabisa
- 18:30• Urarkan: Umeentzat animazioa. RUN-RUN ROCK
- 19:00• Aldatzekuan: Erromeria eta dantza txapelketa jubilatuentzat
- 19:00• Errugbi zelaietan: Jaietako errugbi partida. Elorrioko Errugbi Taldea
- 20:00• Herriko plazan: Euskal erromeria. JO TA HANKA taldea.
- 21:00• Arriolan: Zarzuela. Orfeón Baracaldés - El huésped del sevillano
- 22:00• Probalekuan: XLVII. Idi-proba Txapelketa
- 22:30• Herriko plazan: Suzko zezena. C.D. Elorrio.
- 23:00• Urarkan: Berbena. SALSOTECA ESPECIAL. Karibeko erritmoak.
- 23:00• Gaztetxean: Kontzertua. BOTTLE DUCK + ...

LEANIZ TRESNAK

Orain
Suministros Arga
LEANIZ TRESNAtik
eramaten da



BASERRI TRESNAK
salmenta eta konponketa

pasquall SAME Husqvarna STIHL agria

Leaniz auzoa • 48230 ELORRIO • Bizkaia



94 623 15 43

SOLOZABAL DEKORAZIOA

URARKA, 14-15 • 94 682 03 92 • ELORRIO (BIZKAIA)

IRAILAK 11, Zapatua
Sukalki eguna eta
Gazte eguna

- 08:00**• Aldatzekuan: Sukalki Eguna. Izen-ematea eta erreserbak. Iturrizoro elkarteartea
- Goizean**• Gazte martxari harrera eta luntxa
- 11:30/17:00**• Jolas-parkea. Arriola kalean (ume txikiak), Urarkan (umeak), Frontoian (gaztetxoak)
- 14:30**• Gazte eguneko bazkaria. Ondoren, poteoa taberna eta txosnetatik.
- 16:30-17:30**• Kiroldegian: Futbito partidak. Buzkantz Futbol Kirol Elkarte.
- 17:00**• Aldatzekuan: Erromeria. **BENTAZAHARREKO MUTILAK.**
- 19:00**• Kantaldi iblitaria. 1-Tanger, 2-Alkartu, 3-Urarka, 4-Elizpea. **BENTAZAHARREKO MUTILAK.**
- 18:00**• Herriko plazan: Txokolatada. La Esperanza Nagusien Elkarte.
- 28:30**• Karroza jaitsiera. Izen ematea Irailak 3 baino lehen. Dirulaguntza egongo da!
- 18:45**• Herriko plazan: DJ Oihan

Makilak prest danborradarako

Irailaren 4an helduek eta 12an txikienek joko dute Herriko plazan

Txupinazoaren ondoren, irailaren 4an 23:00etan, Herriko plazan da helduen danborradaren ohiturazko hitzordua. Iazko jaietako akordu oso bereziagaz egingo dute aurtengoa: danborradaren antolatzaileen ardura izan zen jaiari hasiera ematea iaz, eta urteetan egindako lanaren herrikideen errekonozimenduaren oroitzapen eder horregaz hartuko dituzte beste urte batez makilak.

Hiru belaunaldi elkartzen dituen ohitura da 1968an lehenengo aldiz antolatu zuten danborradarena

Ehundik gora elorriarrek jardungo dute emanaldietan: irailaren 4an helduek eta 12an txikienek joko dute

Azken urteetako ohitura jarraituz, danborradaren aurreko asteleheneko entseguan batuko dira ehundik gora partaideak; urtero errepikatzen dituzten kantak zein doinu berriagoak prestatuko dituzte txupinazoa eta gerorako. Orain urte bi estreinatu zituzten kanta berriak eta tradiziozkoak joko dituzte. Guztira, 120 partaide inguru batzea itxaroten dute antolatzaileek.

1968an, Elgetatik ekarritako ohitura da Ferixa Nausiko danborrada Elorrian. Lehenengo edizioetan zaldunek ere zelan parte hartzen zuten ekarri du gogora hasie-



ra-hasieratik danborrada antolatzen jardun duen Mila Arroyok. Azken urteetan danborrada txupinazoagaz batera egin izan dutenez txapligoen eztanda hotsagaz zaldiak beldurtu egiten direlako eta plaza jendez lepo egonten delako, zaldi barik egin izan dituzte urteotako emanaldiak.

Elorriarren hiru belaunaldi batuko ditu aurtenera danborradak: irailaren 4an nagusien taldeak eta 12an txikienek egingo dituzte emanaldiak.

Iazko jaietako akordu oso bereziagaz joko dute aurtenera: danborradaren antolatzaileek jaurti zuten iaz txupinazoa



- ✦ Eguneko menua
- ✦ Okela eta arraina erreta

Tel: 946 582 912 / 669 302 686 • Elorrio (Bizkaia)

BANAKETAK
MIOTA S.L.



Miota, 6 48230 ELORRIO Tel.: 94 623 18 92

Giza eskubideen aldeko jaiak

Ferixa Nausikoe beti izaten dute elkartasunerako tarte bat. Jaietako azken egunean Kainabera gobernuz kanpoko erakundeak urtero ekintza bat antolatzen du plaza inguruan. Elkartearen proiektuen berri emateko eta munduan dauden arazoaren gainean sentsibilizatzeko ekintza izaten da bigarren domekako.

Aurten oinarritzko giza eskubide batzuk izango dira ekintzako protagonista: elikadura, hezkuntza, osasuna eta etxebizitza eskubideak. Kainabera azaldu dutenez, "arazo asko eragiten ditu lau kontzeptu horien faltak.

Kontua ez da herri batzuk beharrezan dardela, euren eskubideak urratzen direla baino".

Ekintza sinbolikoa

Aipatutako lau eskubideen inguruan ekintza sinbolikoa egingo du Kainabera irailaren 12ko goizean. Elkartea sortu zenetik horrelako ekintzak antolatzen dituzte jaietarako. Kainabera 1996an sortu zen, eta gaur egun Kolonbian, Nikaraguan eta Tanzanian hainbat proiektu dituzte. Horrez gainera, ume errusiarren etorrera antolatzen dute eta Elorrion hainbat ekitaldi egiten dituzte sentsibilizazio alorrean.



Bertsolariak, bigarren domekan

Azken urteotan azoka eguneko domekan etorri izan dira bertsolariak Ferixa Nausikoetara. Aurten, bigarren domekan egingo dute osteratxoa Elorrion. Lau bertsolarik jardungo dute kantuan plazan eskainiko duten bertso saioan: Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Amets Arzallus eta Onintza Enbeita.

Bertso saioa umeen danborradaren ondoren hasiko da, 18:30ean. Jaiak amaitzear egongo dira ordurako, eta plan polita izan daiteke azken txanpa hori bertsoak entzuten pasatzea. Ferixa Nausikoen amaierara indarragaz heltzen denak bertso saioaren ondoren euskal erromeria edukiko du, 19:30ean, Erdizka Lauetan taldearen eskutik.

Vega (Euskadi Gaztea)

•22:00• Probalekuan:

XLVII. Idi-proba Txapelketa

•22:30• Plazan: Kale animazioa

suaz. PANDEMIA + KALERIK KALE

•22:30• Txosnagunean: Kontzertua.

ARKADA SOCIAL +

DES-KONTROL

•23:30• Urarkan: Berbena.

HOR KONPON

IRAILAK 12, Domeka

•Goizean• Herriko plazan: ELKARTASUN JAIALDIA. Kainabera GKE

•13:00• Herriko plazan: Herri-kirolak

•17:00• Herriko plazan: Umeen danborrada

•18:30• Herriko plazan: Bertso saioa. Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Amets Arzallus eta Onintza Enbeita.

•19:30• Herriko plazan: Euskal erromeria. ERDIZKA LAUETAN.

IRAILAK 13, Astelehena

•22.00• Probalekuan:

XLVII. Idi-proba Txapelketa

Peluqueria
LUCY
Iteapaindegia
BELEN Estetika
Ibaiondo, 11 Tf: 94 682 05 03

izara
Lentzeria eta Dekorazioa
Urarka kalea 3 • Tel.: 94 682 00 53

ORBELA
Lora eta opari denda
94 658 32 94 ELORRIXO

tel.: 94 658 29 96
630 64 35 99
•Nizeto Urkizu 14. behea
•Florrio (48230) Bizkaia

NUKIEO

Gaztetasunak ere beteko ditu kaleak

Gazte Eguna antolatu dute irailaren 11rako; jai giroan elkartuko dira herriko gazteak, bazkari eta guzti, gainera



Jaiak herritar guztiendako izan ohi dira, baina ezin ukatu gazteriak protagonismo berezia izaten duela. Ferixa Nausikoetan, gazte mugimenduak sektore honentzako apropos eratu du Gazte Eguna, irailaren 11n ospatuko dena, hain zuzen ere.

Aurreko urteetan eguenetan burutu bada ere, aurten zapatua aukeratu dute gazteek euren egunerako. Eskualdetik ailegatuko den martxa bati ongietorria eginez hasiko dute eguna. Martxakoek zein bertan batzen diren herritarrek, luntxagaz hartuko dituzte indarrak goizak aurrera egin ahala. Motorrak berotzen hasiko dira, beraz.

Bazkaria

Gero, eguerdiko bazkarian makina bat gazte batzeko intentzioa dute antolatzaileek. Horixe izango da eguneko hitzordu nagusia.

Eguneko egitarauari jarraipena emateko, poteoa egingo dute arratsaldean, taberna eta txosnetan.

Eskualdetik ailegatuko den martxa bati ongietorria eginez hasiko dute Gazte Eguna; bazkarian batuko dira eguerdian

Karroza jaitsiera, lehenengo biderrez

Aurtengo nobedadeetako bat izango da karroza jaitsiera. Jaiari oraindik eta kolore eta animazio gehiago emango dio ekitaldi berri honek irailaren 11n; seguru lagun talde ugari parte hartuko dutela bertan.

Lehenengo aldia izango da jaitsiera hau ofizialki egiten dena, baina aurrekariak ere baditu. Izan ere, joan zen urteko jaietan dagoeneko ikusi ahal izan ziren kaleetan karroza

Iazko ideia hartuta, udalak aurten jai egitarauan sartu du ekimena

batzuk. Koadrila batzuek, euren kabuz inprobisatu eta karrozetan irtetzea pentsatu zuten, euren mozorroen gehigarri moduan. Deigarria izan zen, inondik ere. Hori ikusirik, udalak aurten jai egitarauan sartu du ekimena, bultzada emateko asmoz.

Parte hartzeko, irailaren 9a baino lehenago eman behar da izena Iturri kultur etxean

Irailaren 9a baino lehenago Iturri kultur etxean eman behar da izena karrozen jaitseran parte hartzeko. Herritarrek parte hartzera animatzeko, diru-laguntzak eskainiko ditu Udalak, gainera, karrozek behar duten materialaren gastuari aurre egin ahal izateko.

ALBAÑILERIA KURUTZONDO



Elizburu 46-48, lonja
Tel.: 94 682 10 79
Tel./Fax: 94 682 00 50
48230 ELORRIO
(Bizkaia)

expert  **CORDEVI**

SUKALDERAKO
ALTZARIAK

ARRINDA
Electro - TV- Video - HiFi

KONPROMISO
GABEKO
AURREKONTUAK

Erreka, 19
☎ 94 623 17 70
☎ 94 658 48 60
48230 ELORRIO (Bizkaia)

“Jendearen parte-hartzerik barik, ez dago jairik”

Herritarrei eman die protagonismoa Asier Castañaresek Ferixa Nausikoak iragartzeko kartelean; hainbat instrumentu eta koloregaz, jai giroa islatu gura izan du



Asier Castañares elorriarraren kartelak iragarriko ditu aurtengo jaiak. 29 urteko gazte honek pozik hartu du saria; bost biderrez aurkeztu da lehiaketara, eta irabazteko ilusioa zuela aitortu digu. Diseinua du gustuko, eta horretan dabil lan eta lan.

Zer islatu edo irudikatu gura izan duzu jaietako kartelean?

Kartelaren bitartez jaiak irudikatu gura izan dit. Festaren protagonista gu geu gara, herritarrak. Horregatik, kartelean protagonista pertsona bat da. Azken urteetan ildo modernoagoak, abstraktuagoak eta minimalistagoak nagusitu dira, baina aurten bai nik eta bai epaileek festaren izaeraren aldeko apustua egin dugu. Jendearen parte-hartzerik barik, ez dago jairik.

Tronpeta, kornetak... zergatik?

Musika, txupinazoa, kalejira, herri-bazkariak... hainbat ekintzatan biltzen dira herritarrak egun horietan. Kaleak jende eta zarataz gainezka egoten dira. Horregatik tronpeta eta kornetak. Kolore biziak erabili ditut, festa eta umore onaren isla direlako.

Zer esan dizu herriko jendeak?

Herritarrek zoriondu egin naute eta niregana hurbildu direnei gustatu egin zaie. Egongo da atseginez hartu ez duenik ere, baina eguzkia

“Festaren protagonista gu geu gara, herritarrak; horregatik ageri da pertsona bat kartelean”

ere ez da denon gustuko izaten. Zer egingo diogu bada!

Lehen aldia al da kartel lehiaketara aurkeztzen zarena?

Bosgarren aldia da eta aurten arte ez dut inoiz saria irabazi. Bazen bereziki irabazteko gogoia neukan lehiaketa.

“Elorrioko Ferixa Nausikoak koloretsuak, parte-hartzaileak, herrikoak eta alaiak iruditzen zaizkit”

Diseinu munduan zabilta...

Ibilbidea bolondres moduan hasi nuen. Gasteizen ikasketak egin eta ondoren bi inprentatan eta freelance moduan ibili naiz. Urteetan zehar hainbat ikastaro egin ditut nire formazioa sendotzeko; azken urtean krisia dela-eta langabezia ezagutu eta horretan jardun izan dut. Orain beste ikuspegi batetik ikusten dut etorkizuna. Izan ere, beste aukera batzuk sartatu zaizkit eta disenuekin lotutako edozer lantzeko prest nago. Gaur egun, webguneen diseinu munduan murgiltzen nabil.

Zelakoak iruditzen zaizkizu Elorrioko jaiak?

Koloretsuak, parte-hartzaileak, herrikoak, alaiak... uda nekez agurtu eta denboraldi berriari ilusioz hasiera emateko momentua izan ohi da.

Zer ekintza ez duzu galtzen?

Gaztetxeak antolatu ohi dituen ekintzak: bazkariak, kontzertuak eta jokoak, adibidez.

Eguna ala gaua?

Biak ditut gustuko, baina parrandarako gaua, zelan ez.

ITZIAR SAGARNA
AZKARATE
NIF. 78868070-N

ilargi

Prensa eta ogia
Musiko Arriola
48230 Elorrio
Tel.: 675 00 58 01

- Prensa
- Aldizkariak
- Liburuak (Helduak, haurrek)
- Baserriko ogia eta ogi integrala
- Umeendako DVDak
- Creditrans txartelak

egunero gure zerbitzura

KAMIKOPIAK
KOPISTEGIA

Fotokopiak • Enkuadernazioak • Plotterak
Planoak • Papergintza • Inprimaketa digitala

Berriotxoa kalea 9 • Tel.-Faxa 94 623 14 31 • 48230 ELORRIO
• kamikopiak@kamikopiak.com •







Jaiak iragartzeko 14 kartel proposamen jaso dituzte aurten

Ferixa Nausiko jaien ezaugarri bereizgarriei erreferentzia egiten dieten irudiekin sortutako kartelak aurkeztu dituzte lehiaketara



Iurri kultur etxean ikusgai izan ziren uztailean udalak deitutako lehiaketara aurkeztu eta udalak ezarritako oinarriak bete dituzten 14 kartelak. Orrialdeotan daukazue ikusgai 2010eko jaiak iragartzeko herritarrek bidali dituzten hamalau proposamenak. Erakusketa ikustera joandako bisitarien botoak kontuan hartuta aukeratu du udaleko ordezkariak eta arte grafikoetako profesionalak osatutako epaimahaiak kartel irabazlea.



Carlos Villaescusa - Aitor Igarza

URBEGI S.L.

- Bainugelako altzari eta komun-ontziak erakusgai
- Zaharberitze eta mantenu lanak

Claudio Gallastegi, 2 • Tel.: 94 682 04 99 • Faxa: 94 658 28 94 • 48230 ELORRIO (Bizkaia)

EREKA 20
arkitektura

Silvia Urrutxi Arkarazo

Tel 94 623 18 47
Erreka kalea 20, 2. A - Elorrio

500 euroko saria jaso duen Asier Castañaresen kartelagaz batera, beste hiru proposamenok aukeratu dituzte finalista


Boto gehien jaso dituzten lau lanak




Agurtzane Ugaldea



Rakel Duran



IRABAZLEA:
Asier Castanares
(KOLORE BIZIAK)



Libe Mimenza

Galdaragintza



EZAGUN, S.L.

Oidor Berriozabalbeitia, 10
Tel.: 94 658 45 47
Fax: 94 658 28 88
48230 ELORRIO (Bizkaia)




Eugenio Sánchez
Agustín Urien

AZKARGI

GARBIKETAK

Bulego eta Industri mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar

Goietza, 10 - 2 esk. - ELORRIO
Tel.: 94 682 09 91

ELORRIO

Pisuak salgai: 21 etxebizitzako proiektuan,

- 1,2 edo 3 gelakoak, ganbararekin.
- Garaje itxia, ate mekanizatuarekin.



**bakarrik
7
gelditzen
dira**

Bi bizitzako adosatuak:

- Partzela eta garajearekin.

**oraindik
aukera
onak!**



- **Isolamenduen kalitatea laborategian bermaturik.**
- **Hartu parte zure bizilekuaren diseinuan.**
- **Zure neurrira moldaturiko finantziazioa.**
- **Bisita gidatuak egiten ditugu obrak dirauen bitartean.**
- **Obraren planoak webgunean ikusgai.**

ZARATE  **ELEXPE**
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga, 19 behea • 48215 IURRETA (Bizkaia)

Tel.: 94 681 66 73 • www.zarateyelexpe.com
construcciones@zarateyelexpe.biz

IRITZIA >

Klik batean @



Oinezkoen pasabide arriskutsua

Matiena auzoan, San Blas aldean, errepideko lanengatik oinezkoen lurpeko pasabidea itxi eta altzari dendaren parean, oinezkoen pasabidea ipini dute bere lekuan. Baina errepide horretatik (N-634) ibilgailu asko pasatzen dira, eta oso arriskutsua da berau gurutzatzea. Pasabidea margotuta dago, baina ez dago berau adie-

razteko seinale bertikalik, beraz, askok ez dakite dagoenik ere. Abiadura 40 km/ordura mugatua dagoen arren, inortxok ere ez du errespetatzen. Ea fotodenuntzia hau ikusi ondoren, norbaitek zerbait egiten duen.

Ibon Lizundia Leturiaga • Matiena-Abadiño

Sei hankako mahaia



Carmen Sanpedro EA

Oporretatik buelta

Oporrak amaitzera doaz, bakoitza bere lanera itzuliko da, ikasleak ikastera...

Beste kurtsu berri bat hasiko da. Betiko moduan kurtsu berriak esperantza ekartzen digu; gauzak aldatuko dira, hobeto joango da dena.

Ekonomia arloan arazoak konpontzen ari direla dirudi, eta krisitik irtetzeko irtenbiderikikusten dute dakitenek. Ia dena konpontzen den eta pobrezia eta paroa beherantz doazen. Oso triste da egoera hau: jende pila bat lan barik, etorkizunera begiratu ezin, eta ondorioak; lapurretak eta abar... Lan baldintzak ere negoziatzen ari dira gobernua eta talde politikoak. Langileen eskubiak errespetatu egin behar dira, bestela kalitatezko prozesua eta errendimendua hobetzeko lanak alferrik izango dira; baita orain arte langileek lortu dituzten baldintza guztiak ere.

Politika arloan kurtsu hau oso intentsoa eta garrantzitsua izango da. Bistan hauteskundeak dauzkagu. Momentuz inognita asko daude, zeintzuk izango diren koalizioak edo taldeak, zelan aurkeztuko diren... Inportanteena, nire ustez, gogoz joatea da. Gogoa, gure herrien alde lan egiteko. Herriko bizilagun guztiak ahal den ondoen bizitzeko lana egin.

Denoksaia behar dugu bes-teen iritziak eta ideiak errespetatzen. Denon artean lan egitea, beste entzunez eta euren proposamenak aztertuz eta kontuan hartuz.

Guztiok gure proiektuak defendatzeko eskubidea izan behar dugu, baina beste guztiak errespetatuz.

Ez dakit, batzuk amets bat dela pentsatuko dute, baina nik uste dut posible dela denok elkarregaz egotea lan egiten, bakoitza bere posturagaz, denak errespetatuz, eta askatasun eta bake giro batean.

Hau da gure asmoa, eta beste askoren asmoa ere bai, pentsatzen dugunez.

Animo bueltarako!

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia
helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO





anboto

durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko abuztuaren 27a - 9. urtea - 382 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:		
	Abadiño	Elorrio	Mallabia
Bizkaiko Foru Aldundia	Atxondo	Garai	Mañaria
	Berriz	Iurreta	Otxandio
	Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretzi Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Ana Dominguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.



Udan batez beste 25-30 pertsona gerturatu da Urkiolako interpretazio zentrora

Udazkenerako hainbat ekintza prestatu dituzte: txori habien azterketa, izarren behaketa eta ibilbide gidatua

Uda amaitzea ez da nahikoa aitzaki egunpasak eta txangoak amaitzeko

Krisiagatik uda honetan opor laburrak eta eguneko txangoak ugaritu egin direla igarri dute Urkiolako parketxean

Opor garaia askorentzat amaituta edo amaitzeko dago, baina aisialdiaz eta naturaz gozatzeko aukerak ez dira udako oporraldiagaz batera joaten. Gure eskualdean bertan aukera ugari daukagu, eta Urkiolako Parke Naturala da horietako bat. Uda garaia amaitzear den honetan, udazkenerako ekitaldiak prest dauzkate Toki Alai Urkiolako parketxean.

Euskal Herriko jendea gerturaten da, batez ere, Urkiolara, eta uda honetan, egunean, batez beste, 25-30 pertsonen bisita jaso dutela azaldu dute interpretazio zentrotako langileek. Bertara egindako bisitatik, inguruko ibilbideen informazioa eta parke naturalari buruzko erakusketa estimatu dute gehien turistek. Udazkenean ere hainbat jende gerturaten da Urkiola-

lara, eta parketxeok hainbat ekintza antolatu dituzte bisitari horientzat.

Habia kutxen azterketa

Irailaren 26rako antolatutako ekintza da habia kutxen azterketa. 12 urtera arteko umeek Toki Alai inguruan dauden habia kutxa batzuk aztertuko dituzte. Kutxetan habia egiteko materialaren arabera, bertan bizi izan den txori mota identifikatuko dute. Goizeko 10:30ean elkartuko dira umeak Toki Alain.

Izarren behaketa

Durangoko Izarra astronomia elkartearen laguntzaz zerua behatzeko irteera antolatu dute urriaren 2rako. Lehenengo hitzaldia izango dute Letona

Korta baserrian, eta gero teleskopioekin izarrik ikusiko dituzte. Konstelazioen argazkiak ere aterako dituzte. Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz, ekintza atzeratu egingo litzateke. Iluntzean, 20:00etan Letona Korta baserrian jarri dute interesatuak batzeko hitzordua.

Ibilbide gidatua

Urriaren 17an, goizean, Urkiolako Lagunak taldeko partaideentzat ordu bi eta erdi inguruko ibilbide gidatua egingo dute. Zailtasunik bako ibilbidea izango da, adin guztietako pertsonentzat egokia.

Ekintza bakoitzerako pertsona kopurua mugatua denez, izena emateko Toki Alaiko telefonora deitu beharko da: 94 681 41 55.



KIROLAK >

lazko joko eredua ispilu hartuta



Durangoko Kulturalak zortzi fitxaketa egin ditu denboraldi berrirako hainbat postu indartu guran.

lazko denboraldia errepikatu gura du Kulturalak, bai sailkapenean bai "baloia irizpidez eta behetik erabiltzeko egindako apustuan"

Durangoko Kulturalak bihar 18:00etan ekingo dio ligari, Baskoniaren zelaietan. Joan zen zapatuan, lagun arteko partidua jokatu zuten talde biek, eta 3-2 galdu zuten Asier Intxaurrenaren mutilek. Zorionez, orduko hartan ez zegoen punturik jokoan, eta segurutzat talde biek arerioa hurretik aztertzeke erabili zuten norgehiagoka. Lehenengo partidua horretan ezin izango du Jon Condek jokatu, zaintiratu baten ondorioz hilabete ingururako baja izango da-eta.

Kulturalak ia abiatutako joko ereduagaz egingo dio aurre Baskoniari zein denboraldiari; defentsa talde lanean oinarrituz, erasoan baloia lurretik erabil-

tzen saiatuko dira, lerro arteko jokoa sustatuz: "lazko denboraldia errepikatu gura dugu; sailkapenari dagokionez ere bai, baina, batez ere, joko proposamenari dagokionez. Sanseren atzetik jokamoldetik erakargarriena proposatu genuen taldea garelako uste dute. Zaleei ere gustatu zitzaizkien, eta horretan jarraituko dugu", azaldu du Ricardo Txintxurreta kirol zuzendariak.

Harrobiko jokalariek

Kanpotik zortzi jokalarik fitxatu dituzte talde nagusirako, baina hamar dira aurpegi berriak. Azken biak harrobitik igo dituzte. Iñigo Carro gazteen taldetik igo dute, eta talde nagusiko fitxa

egin diote. Beraz, nagusiekin jokatu du. Eskuin hegalean zein zentral moduan jokatu dezake 19 urteko durangarrak. Jon Leturiagak gazte mailako fitxa du oraindik, baina aurre-denboraldi osoa nagusiekin egin du, eta izango ditu aukerak. Zelai erdian jokatzen du irailan 18 urte egingo dituen gazteak.

Talde nagusiak 21 jokalarik ditu. Bederatzi lagunek utzi dute taldea: Aitor Bilbao, Asier Etxebarria, Jokin Bernaola, Jose Mari Ugartetxea "Txumai", Joseba Garcia, Julen Gonzalo, Lander Bereziartua, Mikel Moreno eta Unai Calvok. Azken biak Lemoara joan dira eta 2.B mailan jokatu dute aurten. ■ J.D.



Izena: Odei Onaindia
Jaioteguna: 89/12/07
Herria: Lekeitio

Baskonia taldetik dator. Zentral moduan jokatzen du, baina zelai erdian ere jokatu dezake. Orain urte bi play-offa jokatu zuen Elgoibarregaz. Jokalari gaztea baina esperientziaduna da.



Izena: Gaizka Melendez
Jaioteguna: 80/03/06
Herria: Zornotza

Elgoibarretik dator. Beteranoa da (30 urte dauka) eta zentral jokatzen du. Play-offetan behin baino gehiagotan jokatu duen jokalaria da, eta esperientzia hori ondo etorriko zaio taldeari.



Izena: Ander Pinilla
Jaioteguna: 84/05/12
Herria: Berriz

Elgoibarretik dator. 26 urteko jokalaria honek Elgoibarren bi urte oso onak osatu ditu. Partidu gehienak jokatu ditu eta play-offean borrokan ibili da. Gaztetasuna eta esperientzia batzen ditu.



Izena: Ibai San Martin
Jaioteguna: 84/03/26
Herria: Mutriku

Pinatar Murciatik dator. Orain lau-bost urte Kulturalan jokatu zuen. Kulturalagaz 2.B mailan jokatutakoa da. Euskarri moduan jokatzen du. Gorputz handia du eta goiko jokoan oso ondo dabil.



Izena: Iker Martinez
Jaioteguna: 84/04/22
Herria: Elgoibar

Laudiotik dator. Erasoko jokalaria da eta kalitate handikoa. Laudion ez zuen askorik jokatu, baina aurretik Elgoibarren denboraldi onak egin zituen. Orduko jokalarik hura berreskuratu gura dute.



Izena: Ibon Enciendo
Jaioteguna: 88/09/27
Herria: Bilbo

Amurriotik dator. Lezamatik irtendako jokalarik gaztea da, azkarra eta kalitate handikoa. Iaz ez zuen zortzerik izan eta, Martinezekin moduan, bere mailarik onenera berreskuratu gura dute Durangon.



Izena: Jonatan Iglesias
Jaioteguna: 86/04/01
Herria: Bilbo

Retuertotik dator. Lezaman ibilitako jokalaria da Enciendo. Ezkerrean zein zelai erdian aurrera begira jokatu dezake. Ezker oinarekin jokatzen du. Teknika oneko jokalaria da, eta abila erregatean.



Izena: Unai Mugika
Jaioteguna: 86/11/15
Herria: Elgoibar

Zornotzatik dator. Zentral moduan jokatzen du. Mutil garaia da: 1,90 metro inguruan dabil. Ondorioz, indartsua da goiko jokoan. Praktikotasuna eta sendotasuna ditu dohaletako bi.

“Aurretik halako distantziarik probatu barik nengoen”



Hurrengo Kataluniako Cavalls de Vent-eko lasterketan parte hartu gura du Urizarrek.

Uztailean, Ehun Milen lehenengo aldian (167 kilometro), bigarren amaitu zuen Iker Urizar elorriarrak, 26 ordu 3 minutu eta 9 segundoko denboran. Beasainen hasi eta amaitu zen lasterketan Txindoki eta Aizkorri gainak pasatu zituzten, besteak beste.

Zergatik erabaki zenuen Ehun Miletan parte hartzea?

Aurretik Hiru Handiak eginda nituen, eta tankerako lasterketa berri bat probatzea erabaki nuen. Printzipioz, aurten Hiru Handiak egitea nuen helburu, baina bategaz berba egin eta besteagaz komentatu, azkenean Ehun Milak egitea erabaki nuen.

Zerk eraman zintuen Ehun Milen aldeko erabakia hartzea?

la bikoiztu egiten du Hiru Handiek duten desnibel maila, eta 67 kilometro gehiago ere badi-tu. Beraz, erronka baten moduan hartu nuen, neure buruari beste mailatxo bat gehiago eskatzeko modua zen.

Itxaroten zenuen lasterketa bigarren amaitzea?

Ez, ezta gutxiagorik ere. Sorpresa handia izan zen. Helbururik behinena lasterketa amaitzea nuen. Parte-hartzaileen berri banekien, eta hori kontuan hartuta lehenengo 30en artean sartzea emaitza ona izango zela pentsatuta joan nintzen. Gertatzen zena gertatzen zela, bigarren gaua ekidin egin gura nuen ahal zen neurrian. Diotenez, bigarren gaua oso gogorra gertatu daiteke; desorientatzea errazagoa da, zorabioak gehitzen dira... eta 18:00etan has-

ten zen lasterketa 30 bat ordu-ren bueltan amaitu gura nuen.

Aurreikusitako baina lau ordu gutxiago behar izan zenituen lasterketa osatzeko.

Aurretik horrelako distantziarik korritu barik nengoen, eta horrelako kasuetan, badaezpada, kalkulak goitik egiten dira. Lasterketaren bigarren zatian erritmoa asko jaisten da normalean, eta horregatik uste nuen 30 ordu-ren inguruan ibili nintekeela.

30 ordutan egitea itxaroten nuen; uste baina hobeto aurkitu nintzen

Zein izan zen zure errendimenduen gakoak?

Oso ondo aurkitu nintzen hasieratik. Aurretik egindako lasterketa lanak bere emaitza eman zuten. Baliteke eguraldiak beste korrikalarien jarduna baldintzatu izana. Hasieran sargoria eduki genuen, baina abiatu eta hirugarren orduan ziri-miria hasi zuen eta behelainoa ere agertu zen. Ondoren, Txindoki inguruan euri

dezente egin zuen ibilbidea lokaztuz. Baldintza horietan aritu ginen Aizkorri atzean utzi arte.

Oraintxe bertan ez dut lasterketa hori berriro korritzeko motibazio berezirik

Horrelako eguraldiagaz hobeto moldatzen zara?

Beroagaz ez naiz hain ondo moldatzen. Deshidratatzea errazagoa da, eta oinetan babak irten daitezke. Aukeran, gurago dut bero handirik ez egitea.

Arazo fisikorik izan zenuen lasterketan zehar?

Ez nuen ezelako arazorik izan. Alde horretatik zortea izan nuen. Izan ere, sarritan nahikoa da kolpetxo bat dena hondatzeko.

Atzetik aurrerako bidea egin zenuen...

Indarrak eta esfortzuak apur bat neurtuz ekin nion lasterketari, amaieran falta egingo zidatelakoan. Ibilbideko gune batzuetan lagunak nituen, eta haiek esaten zidaten zenbatgarren nindotan. Helmutarako kilometro

Unai Zamalloa
•Saskibaloi entrenatzailea



Bueltan gatoz

Hondartzatik bueltan eta oraindik Marijaiaren abes-tia behin eta berriz nire buruan ari dela idatzi dut nire aurtengo denboraldiko lehenengo artikulotxo hau.

Gure taldeak aurrendenboraldian murgilduta dabilta bete-betean. Prestaketa garai honetan egingo den lanak hurrengo hilabeteetan zeresan handia izango du, orain jartzen diren oinarriak gerora funtsezkoak izango direlako.

Gure inguruan berri nagusia gizonetzkoen EBA liga da. Lehiaketa hori estatu mailako konpetizioa da, eta bertan talde profesional eta semiprofesional asko daude. Eta horiekin batera, A multzoan, gure eskualdeko bi talde ibiliko dira aurtengo denboraldian: Tabirako eta Zornotza.

Lehenengoak, liga bederatzigarren postuan amaituta, klubak egindako lan handiagatik jaso du gonbitea EBAn parte hartzeko. Merezita, dudarik barik.

Ez dute aldaketa handirik taldean eta fitxaketa nagusia Asier Tejerina bueltatzea izango da. Lan handia egiten duen taldea da beti, eta gogor eta gogoz ekingo diote partidu bakoitzari; zentimetro gabezia ilusioz beteko dute. Zorte on!

Zornotzarrak, ostera, asko mugitu dira udan eta joan den urteko taldea oinarri gisa hartuta, berau osatu dute Iñaki Muñoz, Gorka Garzon, Peru Zorro-zua, Unai Guinea, Markel Ortiz de Murua jokalariekin. Helburua: urtea ahalik eta garantía handienekin has-tea eta maila mantentzea.

Oporrak amaitu dira, eta hemendik aurrera gogor eta ilusioz lan egiteko ordua da.

Adituarentxokoa

biren faltan pasatu nuen ordura arte bigarren joan zena. Aizkorri-tik Beasainerako tarteari ekin genionean 20 bat minutuko aldea ateratzen zidan, eta apurka-apurka aldea jan nion.

Zelakoa izan zen Ehun Miletarako prestaketa lana?

Ez dago sekretu berezirik, kilometroak pilatuz hartzen da sasoi. Lasterketaren aurretik ibilbide osoa egin nuen etapaka, bost-sei egunean. Ibilbidea aztertu eta haren ezaugarriak batu nituen. Aurretik zer duzun jakiteak ere laguntzen du indarrak neurtzerako orduan.

Datorren urtean ere parte hartuko duzu?

Lehenengo eta behin, ez dakit antolatuko duten. Hiru Handiak urte birik behin izaten dira, eta printzipioz Ehun Milak urteroko hitzordua izatea gura dute. Hala ere, ikusi egin beharko da. Egia esanda, oraintxe bertan ez daukat berriro parte hartzeko motibazio hori, baina baliteke denbora joan ahala berriro piztea, lasterketak oso sentzazio onak utzi dizkidalako. Azken batean, gehienok hobbie moduan ibiltzen gara eta hainbeste entrenatu ondoren bigarren geratze-ak animatu egiten zaitu.

Horrelako lasterketetan aurreko aldiko jarduna hobetzea izan ohi duzue helburu. Zuri postu bakarra geratzen zaizu hobetzeko.

Kasu honetan bai, baina hainbat lasterketa daude, eta niri asko gustatzen zait lasterketa berriak

korritu eta paraje berriak ezagutzea.

Aurten ez dituzu Hiru Handiak egin, baina egindakoa zara. Kontrako noranzkoan antolatu dute ibilbidea eta oso gogorra izan ei da.


Ibilbidearen berri jakin nuenean horixe bera pentsatu nuen. Koardilako batek parte hartu zuen eta lasterketa hasi aurretik abisatu nion: “Oraindino sasoi zagoz”. Lehenengo parte oso azkarra da, eta indartsu zauden bitartean bizi ibiltzea erraza da, baina orduan egindako esfortzua azkenean igarri egiten da. Gainera, bero itzela egin zuen. Lagunak pozik eta gustura amaitu zuen, baina hurrengo aldian ibilbide hori mantentzen badute ez duela parte hartuko aipatu zidan.

Fisikoki ez eze, buruz ere gogorra izan beharra dago.

Bai, behin puntu batetik aurrera alde guztietan somatzen dituzu ahuldadeak; hemen mina, han mina... dena lasterketa uzteko aitzakia bihurtu daiteke. Une horietan norbere burua kontrolatzeko mentalki indartsua izan beharra dago. ■ J.D.

Bigarren eguneko gaua ahalik gehien laburtzea nuen helburu

OSASUN GIDA



SPA ETA OSASUN ZENTRUA



Vilegy

Rehabilitazioa • Fisioterapia • Reflexoterapia • Testaje integral eta naturala • Tratamendu eta prebentzioa
Drenaje linfatikoa • Enboluturak • Masajeak • Estetika • Nutrizioa eta dietetika • Laser depilazioa
Kirol psikologia • Tabakoaren kontrako tratamendua

Untzillatx, 11 behea • 48200 DURANGO
tf. 94 681 03 58


ESKU-TERAPIA



Masajea osteopatiarekin
Aitor

Sasikoa 28 behea - Adikor zentroan
48200 Durango
tf. 619 17 61 53

PODOLOGIA



**JON
GERRIKAETXEBARRIA
PENÄ**

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO
tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO
tf: 94 681 99 51

FISIOTERAPIA



**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ
tf. 94 622 55 93

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ
tf: 94 622 50 99



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO
tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

PSIKOLOGIA



JON ARRUBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz
tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROMASAJEA



**KIROMASAJEA
DIGITOPUNTURA**

Komentu kalea 15
48200 DURANGO
tf. 94 620 00 52



**HIRU
FISIOTERAPIA**

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO
tf. 94 466 94 00

laguntzaileak



ABADIÑOKO UDALA



ATXONDOKO UDALA



DURANGOKO UDALA



ELORRIOKO UDALA



MALLABIKO UDALA

LAUHANKA[>]



Katuek dituzten berezko ezaugarriek garrantzia izaten dute aukeraketan

Katuen artean arrakasta gehien dutenak arraza siamesa, birmanoa, persa eta europearra izaten dira.

Persek konpainia eskatzen dute; europearrak oso intuitiboak dira

Etxean animalia bat gura dugunean, hainbat duda izaten ditugu. Zer arraza aukeratu, zer tamaina, zer kolore... Baina garrantzitsuenak da gure etxera ondoen egokitzeko dena aukeratzeko. Katua izateko gura izanez gero, kanpoko itxuraz baino gehiago, arraza bakoitzaren ezaugarriak ezagutzeko beharrezkoa da aukeraketa egiteko orduan.

Arraza aukeratuena

Katuetan arrakasta gehien duten lau arrazak siamesa, birmanoa, persa eta europearra dira.

Katu siamesak ekialdeko ezaugarriak ditu, hanka luze eta meheak dauzka eta itxura oso dotorea eta liraina izaten dute, baina muskulu indartsuak dituzte. Burua hiruki formakoa dute, punta pikoagaz amaitzen diren belarri handiekin. Ilaje suabea eta

sarria izaten dute. Kolorea da, baina, bere ezaugarri aipagarriena, albinismo gene batek eragiten du katuak kolore iluna hantketan, belarri bukaeran, buztanean eta aurpegian bakarrik izatea. Siamesa oso jostaria eta lagunkoia da, baina egozentrikoa ere bai, beraz, arretoa oso berarentzat gura du; ez zaio beste animaliekin konpartitzea gustatzen.

Katu birmanoa oso maitakorra izaten da etxekoekin, baina hotza ezezagunekin. Jolastea gustuko du, baina lotsatia ere bada, beraz, ez da une oro zaintzailearen ondoan egongo. Gorputz trinkoa eta luzanga du, eta hanka zuriak.

Katu persa aukeratzeko gero, kontutan eduki behar da atentzio handia eta konpainia eskatzen duela. Baina eurak oso gutxitan erakusten dute maitasun hori. Gorputz sendoa dute eta tamai-

na ertaineko katu lasaiak izaten dira, beraz, espazio txikiak ondo egokitzen dira. Katu persak beste animaliekin ondo moldatzen dira, eta txakurrekin ere hartu-eman ona daukate. Ilaje eta begiek zaintza eskatzen dute. Katu persak hogeita hamar motatakoak baino gehiago daude; ilajeagatik eta begiengatik bereizten dira.

Katu europearra maitakorra eta argia da. Intuzio handia izaten dute, eta beti adi egon ohi dira. Oso garbiak izaten dira. Gorputzera zabala daukate; ilaje ugaria, laburra eta suabea izaten dute. Burua borobila eta zabala izaten da. Begi handi, borobil eta espresio handikoak izaten dituzte. Katu europearra oso moldagarria da, beraz, hainbat eratako giroetara egokitu daiteke; etxe handi zein apartamentu txiki batean bizi daiteke.

Siamesak dotoreak eta egozentrikoak izaten dira

Katu birmanoa maitagarriak eta lotsatiak dira

anboto.iragarkilaburrak.com

deroa bere armariekin, erropentzako 2 armairu, hozgailua, ur garbia eta ur ziki...

salgai. Yamaha jog motorra salgai. 2.000 km. lata pasatuta. Ezer aldatu barik...

BESTE IBILGAILUAK

Honda rincon atv quad-a salgai. Honda rincon atv quad-a salgai. Bost urte ditu...

GAINERAKOAK

BMW 4 llantak (17 pulgada) salgai. BMW 4 llantak (17 pulgada) salgai. Berriki daude...

MOTORRAK

50 cc peugeot eliseo maxi scooter salgai. 50 cc peugeot eliseo maxi scooter salgai. 2000 urtekoa...

Yamaha jog scooter bat

Monty aluminiozko 219 alp bizikleta salgai. Monty aluminiozko 219 alp bizikleta salgai. Prezioa: 325 euro.

Aisia/kirola

KIROLAK

Urpekari tza ekipoa salgai. Neopreno luze eta laburra, jacket-a reguladoreak...

GAINERAKOAK

Futbitorako neska bila. 2010-2011 denboraldirako, nesken futbito talde federatua...

ANIMALIAK

Astoa salgai. Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita.

Bulldog frantsesak salgai

Bulldog frantsesak saltzen dituzte prezio onean. Intersa badaukazu deitu...

Kapoiak salgai. Kapoiak saltzen dituzte. Interesatuta egonez gero, deitu hurrengo telefono zenbakietara...

Txakur hezitzailea. Txakur hezitzailea. Eusko jaurlaritzan erregistratuta. Hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte.

EMAN

Arratoi txakurkumeak. Arratoi txakurkumea nahi baduzu, deitu telefono honetara...

Bi katakume oparitzeko. Katakume bi oparitzen dituzte. Oso sozializatuta daude.

Bi katakume oparitzen dira Mallabian. Bi katakume, bat grisa eta bestea beltza oparitzen dira.

Etzeko katuak dauzkat emateko. Etzeko katuak doan ematen dituzte. Interesatuek deitu 94 682 79 66 telefonora.

MUSIKA/PELIKU-LAK/LIBURUAK

Gitarra eskola pribatuak durangon. Gitarra eskola pribatuak durangon. Elektrikoa, akustikoa, rock-a, blues-a, jazz-a, funk-a, etb.

SARRERAK

Boligrafoa saldu eta U2ren sarrerak donostia-ko kontzerturako opari. U2ren kontzertua ikusteko 2 sarrerara oparitzen dizkiet boligrafoa erosten didanari.

OPORRAK/BIDAIAK

Etorri Lodosara. Nafarroako Ebroren ertzean ezagutu nahi baduzu, etorri Lodosara eta egun batzuk pasatu gure landaetxean.

Familia/etxea

ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK

Labea salgai. Oso egoera onean dagoen labea salgai. Fagor 5h-113b modeloa, kolore zurikoa.

Minbre naturaleko sofa.

Minbrezko sofa eta butaka salgai. Sofaren neurriak, 1,65 x 0,90. El corte inglesen erositakoak dira orain urtebe.

Ohe artikulatua salgai.

Pertsona nagusientzako ohe artikulatua salgai. Urrutiko agintea du.

EROSI

Vitrozeramika behar da. Vitrozeramika behar da, bigarren eskuko etxe baten tzentan. Ana. Telefonoa: 671847448

INMOBILIARIK

ETXETXO G. INMOBILIARIA. ERAIKUNTZA BERRIAK. • Zaldibarren: 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak. • Tabira: Berriak. Berehalako banaketa. 192.000€.

Amboto. San Agustinale, 4 - 1 Ezk. DURANGO. ETXEBIZITZA SALGAI. BERRIZ. • Logela, sukalde "amerikarra", egongela eta komuna. Durango. • Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak...

AGENCIA INMOBILIARIA Fernando Uribe. Barrenkalea, 15 - bajo - Telf. y Fax: 94 681 64 23. ETXEBIZITZA BERRIAK. • Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai. • Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin salgai.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado. Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO. ETXEBIZITZA SALGAI. • Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak. • Logela bakarra garajea eta ganbarearekin 200.000€+ BEZ.

EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA



www.euskolabel.net

Eusko Labelaren K-rekin

Gure lurreko elikagai aukeratuak, mimo handiz ekoiztuak, hasieratik bukaeraraino kontrolatuak eta benetakotasunaren berme guztiekin.

Kalitatea Fundazioa



Zu zaintzeko zaindua

- | | | | | | | | | | | | |
|---|--|---|--|--|--|---|--|----------------------|--|--|--|
| Euskal Okela
Carne de Vacuno del País Vasco | Euskal Esne Bildotsa
Cordero Lechal del País Vasco | Gernikako Piperra
Pimiento de Gernika | Hegaluzea eta Hegalaburra
Bonito del Norte y Atún Rojo | Euskal Baserriko Arrautza
Huevo de Caserío Vasco | Euskal Baserriko Oilaskoa
Queso de Caserío Vasco | Euskal Esnea
Leche del País Vasco | Ibarrako Piparrak
Guindillas de Ibarra | Eztia
Miel | Euskal Tomatea
Tomate del País Vasco | Arabako Patata
Patata de Alava | Euskal Babarrunak
Alubias del País Vasco |
|---|--|---|--|--|--|---|--|----------------------|--|--|--|

Eusko Labela: ona den seinale



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

- | | |
|--|--|
| Abadiño
• PINILLA HARATEGIA
TRAÑABARREN, 29-MATIENA | Durango
• GALLASTEGI HARATEGIA
ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1 |
| Zaldibar
• GALLASTEGI HARATEGIA
ZALDUASOLO PLAZA, 8 | Iñaki Harategia
• IÑAKI HARATEGIA
SASIKOA KALEA, 10 |
| Otxandio
• GAZTAÑETA HARATEGIA
ARTEKALE, 25 | Oka Harategia
• OKA HARATEGIA
ANDRA MARI, 3 |

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Especializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

Euskal Herrian ekoiztuak, ingurunea errespetatuz eta kontrol zorrotzak pasatuz, gozo-gozoak, eta kalitate handikoak. Honelakoak dira "Eusko Label" zigilua duten gure produktuak. Bilatu logotipoa eta desberdintasuna dastatu.



Orain, gainera, Kalitatezko Euskal produktuekin betetako saski bat irabaz dezakezu



Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta

Hilero azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarrunak, pote 1 "Ibarrako Piparrak", pote 1 Ezti, Idiazabal gatza, botella 1 "Bizkaiko Txakolina", botella 1 "Arabar Errioxako Ardoa", botila 1 Arabar Errioxako Olio Birjina, Txakolinezko bonboi-kutxa 1 eta 30€ko txartel 1 Euskal Okelaz, Euskal Esne Bildotzaz edo Euskal Baserriko Oilaskoz trukatzeko.

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Irailaren 3an, 22:00etan Plateruenean

XII. Gau Elektronikoa

Abuztuan antzokia itxita egon eta gero, opening jaia egingo dute irailaren 3an Durangoko Plateruenean. Minimal eta techno house doinuek beteko dute ikasturte irekieran antzokia. Piek aka Piekfein, Ruben Costa eta argazkiko Iker Undersound dj-ak dira egun horretan Platerueneko gonbidatuak.

ERAKUSKETA

DURANGO

- » **Kepa Aginako argazkilaria**ren erakusketa uztaila eta abuztuan ikusgai Art Lekun.
- » **Gabriel Cualladóren 'Argazkiak'** erakusketa Durangoko Arte eta Historia Museoa, abuztuaren 29ra arte zabalik.



BERRIZ

- » **'Exhumando fosas, recuperando dignidades'** argazki erakusketa irailaren 3tik 11ra Berrizko Kultur Etxeko sarreran.

BERBALDIAK

BERRIZ

- » **Iñaki Eganaren** hitzaldia: 'Exhumando fosas, recuperando dignidades' erakusketaren aurkezpena, irailaren 3an, 19:00etan Berrizko Kultur Etxean. Aranzadi Zientzia Elkarteak 2.000. urtetik Gerra Zibileko hobiak ikertzen egindako lanaren gaineko erakusketaren aurkezpena. Ikerketa lanaren alderdi zientifikoa zein gorpuak hobitiek ateratzearen alderdi gizatiarrari buruz jardungo du historialariak.

JAIK

ELORRIO

San Agustingo jaiak

- » **Abuztuaren 27an**, 18:00etan **Txopoa jasotzea**. 18:30ean **Gymkana herrikoia**: boloak, tranpolina, balanzinak, pasarelak, kanastak... Ume txikiendako "molto" lasterketa. Ondoren, **trikitilariak eta auzo afaria**. **Abuztuaren 28an**, San Agustín Eguna. 12:00etan **Meza**. 13:00etan, **Betsaide dantza** taldearen emanaldia eta ondoren trikitilariak. 14:30ean **Auzo bazkaria**. 16:00etan **Mus txapelketa**. 17:00etan **umeentzako jolas eta tailerrak**. 18:00etan **Zaki magoa**. 20:00-21:00 eta 22:30etik aurrera **Erromeria Luhartz taldeagaz**.

Ferixa Nausiko jaiak

- » **Irailaren 3an**, 11:00-13:00 umeentzako **globoflexia** tailerra Herriko plazan. 17:30-19:00 **bitsaren jaia** Herriko plazan. 19:00etan **pilota partidak** plazako frontoian. 23:00etan **kontzertuak** txosnagunean (Ghetto, Puro Chile eta Raimundo Amador).
- » **Irailaren 4an**, 11:30-17:00 **jolas parkea** Arriola kalean, Urarkan eta frontoian. 19:00etan **txarangak** auzoetatik plazara. 19:00etan **buruhandi eta erraldoiak** Herriko plazan. 20:00etan **txupinazoa** eta **entzierro txikia** Herriko plazan. 23:00etan **danborrada** Herriko plazan. 23:00etan **Dj-a** Urarkan. 00:00etan **kalejira**. 01:00etan **berbena** Urarkan. 01:00etan kontzertuak gaztetxean (Kañeria 13 eta Disorders).

- » **Irailaren 5ean**, 10:00etan **Abere eta nekazal azoka** Feriagunean. 17:30ean **pilota partidak** H.Azkarate frontoian. 18:30ean **Munduko dantza eta musikak** Herriko plazan. 19:30ean, **bilbainadak eta habanerak** Aldatzekuan. 20:00etan **Mariachiak** kalerik kale. 22:30ean, **Suzko zezena** Herriko plazan. 23:00etan **Mariachien gaua**.

MALLABIA

Zengotitako jaiak

- » **Abuztuaren 28an**, 20:00etan **txopoa** altxatu. 21:00etan **auzotarren afaria**. **Abuztuaren 29an**, 11:30ean meza nagusia. 12:35ean Berrizko San Lorentzo **dantza** taldearen emanaldia. 13:00etan **Ardi-ahate txakur erakusketa**. 14:30 **gonbidatuentzat bazkaria**. 17:30ean **Bolo txapelketa** nagusia (180 euroko lehenengo saria, 125 euroko bigarrena, 105 euroko hirugarrena, eta 75 euroko laugarrena saria). 18:00etan umeen **jolasak eta puzgarriak** eta ondoren **trikitilariak**. **Abuztuaren 30ean**, 12:00etan auzoko **hildakoen meza**. 12:30ean **paella txapelketa**. 13:00etan **bolo txapelketa**. 13:30ean paella txapelketako **sari banaketa**. 14:30ean **paella-jana**. 19:00etan **asto probak**. Arratsaldeko 20:05ean **karretilla-ren zozketa**.

MUSIKA

ZALDIBAR

- » **Irailaren 3an**, **Disorders** taldearen kontzertua 23:00etan Zaldibarko Gaztetxean. 'Hitzak' izeneko disko berriaren aurkezpen kontzertua.

LEHIAKETAK

ABADIÑO

- » **2011rako udalaren egutegirako argazki** lehiaketa. Gaia: Abadiñoako auzoak. Argazkiak aurkezteko epea, irailaren 30era artekoa da, eta Udalaren web-gunearen bitartez bidali daitezke argazkiak. 300 euroko saria izango du epaimahaiak aukeratutakoak.

ZALDIBAR

- » **Irailaren 17a baino lehen** aurkeztu daitezke III. Postal Lehiaketara lanak. Lanak helbide honetara bidali: Zaldibarko Udal Liburutegia, Euskal Herria kalea, 5-behea.

IKASTAROAK

ABADIÑO

- » **Urritik** maiatzera arte Mediatekan, Errota kultur etxean, probalekuan eta Muntzaratzen izango diren batuka, areto dantzak, Tai chi, joskintza, yoga... ikastaroetan **izena emateko epea, irailaren 24ra arte**. Errota kultur etxean zein mediatekan informazio gehiago eta izen-ematea.

ELORRIO

- » 2010-2011 ikasturterako Elorrioko Udalak antolatutako dantza ikastaroetan izena emateko epea zabalik. Irailaren 20tik 24ra, egun bakoitzean dantza-mota bat probatu ahal izango dute herritarrek: **sabel dantza, sevillanak, Karibeko dantzak, areto dantzak eta koreografia modernoak** ikasteko aukera eskainiko dute.

BERTSOAK

ZORNOTZA

- » **Irailaren 4an**, 14:30etan, Euban. Bertsolariak: Fredi Paia, Etxahun Lekue eta Jone Uria.

BESTEAK

ABADIÑO

- » **Abuztuaren 28an**, Errogatiba Eguna Urkiolako santutegian. 11:30ean meza, ondoren Talde Batuak-en dantza emanaldia, eta 14:00etan jubilatuen bazkaria.



ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Como perros y gatos 2-3D

Zuzendaria: Lawrence Guterman

Barikua 27: 18:00 / 20:30
 Zapatua 28: 17:00 / 19:30 / 22:30
 Domeka 29: 17:00 / 19:30
 Astelehena 30: 18:00 / 20:30
 Martitena 31: 20:00 (ikuslearen eguna)



anboto, durangaldeko astekaria




Egin zaitez harpidedun

harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo harpidedun@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali



DENBORAPASAK

	Gauza pozoitsua	Egokitu	Itzagaondoa
	Eden	Ukimendu	ko
	... edo zart, erabaki!		
	Pregoi		
Kiskalarazia	Ekialdean, bost		
* Irudiko altzaria	Marmola lantzen du		
Sailkapen			
Kolore mota			
		A birritan	
		Nafarroako herria	
Bizkaiko herria			
Dena, guztia			
		Ez argi	
		Izan	
Pl., sexu emea			500
Barazki hostotsuak			Bizkaiko ibaia
		Ale lanadre	
		Utik!	
Iraupena			
Gaintzako			

ZORION AGURRAK

zorionak@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta



Zorionak, **Iratxe!** Uztailaren 9an 22 urte egin zenituen. Musu asko eta tirakada bana, ama, aita, Natalia eta Alazneren partez.



Uztailaren 29an **Unax Azkorbebeitiak** 4 urte egin zituen. Zorionak, zure familia guztiaren partez.



Zorionak, **Maier!** Urte batean hainbeste hasi eta ikasi daitekeenik... presa eduki zenuen eta ez duzu denbora galtzen. Maite zaitugu!



Abuztuaren 11n **June Ereñaga Isastik** 9 urte egin zituen. Musu eta besarkada handi bat aita, ama eta amamaren partez!.



Hona hemen lurretako neba-arreba pareta, **Irati eta Oroitz.** Lehenengoak uztailaren 24an 6 urte egin zituen, eta bigarrenak uztailaren 26an 2 urte. Zorionak eta musu handi bat bakoitzari, familia osoaren partez.



Iban Camacho eta Ainhoa Etxebarria uztailaren 31n ezkondu ziren. Zorionak bikote, familia guztiaren partez, eta ondo-ondo pasatu egizue Japon aldean.



Zorionak, bikote! Primeran pasatu genuen zuen ezkontzan. Oso ondo pasatu Amerika aldean. Musu handi bat eteko denon partez.

	7	8	4	1	2	
	3					
8		5	9	3		6 4
	6	3			4 2 5	
4	5	9			1	
	2	1	7	4		8
					6 3 9	
		4	8	2		1
1						

	2	6				
	8		2		3	1
4		6				2
7		3				
				1		8
3				8	7	4
					8	3
	5	7	4		6	
	2					

BOTIKAK

- Barikua, 27**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
- Zapatua, 28**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
- 09:00-13:30
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
• SanRoma / Balenciaga/ Campillo
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
- Domoka, 29**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
- 09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
- Astelehena, 30**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- Martitzena, 31**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
- 09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
- Eguaztena, 1**
09:00-09:00
• Unamunzaga (Muruetta Torre 2C - Durango)
- Eguena, 2**
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak**.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
- Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia946 811 001
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano946 582 854
lurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALTZAINGOA**
- Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88
- EGURALDIA**
- 16° 28° **BARIKUA** ☁
12° 23° **ZAPATUA** ☁
12° 24° **DOMOKA** ☁
11° 23° **ASTELEHENA** ☀
18° 15° **MARTITZENA** ☀

ARIES

(marxoak 21 - apirilak 20)
Oporretatik bueltan kostan egiten zaizue ohiko erritmoa hartzea. Ez dago, ba, beste erremediorik!

TAURUS (apirilak 21 - maiatzak 20)
Lan berri bati ekingo diozu eta ilusioz gainezka zaude. Izan duzun lanik erakargarriena da.

GEMINI (maiatzak 21 - ekainak 20)
Bikotekideagazko hartu-eman hartzeko da aspaldian. Hobe izango duzue berba egitea.

CANCER (ekainak 21 - uztailak 20)
Udako alergiak ez dizu bakerik ematen. Negua noiz helduko zain zaude arnasa lasai hartzeko.

LEO (uztailak 21 - abuztuak 23)
Osasun arazoak tarteko umorea petraldu egin zaizu. Gogoratu ingurukoek ez dutela erririk.

VIRGO (abuztuak 24 - irailak 23)
Lagunek bizkarra eman dizute. Horrelako lagunekin zertarako etsaiak?

LIBRA (irailak 24 - urriak 23)
Eguzkitik datorren gauzarik onena itzala dela uste duzu. Beroa itogarri egiten zaizu.

SCORPIUS (urriak 24 - azaroak 23)
Ezkondu zinenetik bizitza erabat aldatu zaizu. Damutzen hasita ote zauden...

SAGITARIUS (azaroak 24 - abenduak 23)
"Dama bat maitatzen det, baina haren jabe..."; bertsoaren amaierak txikitu egiten zaizu.

CAPRICORNUS (abenduak 24 - urtarrilak 20)
Aspaldian dena ondo iritzen zaizu. Aprobetxatu, sekula ez da jakiten zortea noiz aldatuko den.

AQUARIUS (urtarrilak 21 - otsailak 21)
Gaizki ulertu bat izan zen guztia. Horregatik ezin duzu hain lagun ona betirako galdu.

PISCIS (otsailak 22 - martiak 20)
A zer odisea aspaldian egokitu zaizuna. Homeroren poema epikoan ere hainbesteko zoritzarrik!

SOLUZIOAK

2	4	8	6	3	5	7	1
7	1	7	5	2	8	4	9
6	3	7	1	7	5	2	8
3	2	1	7	5	2	8	4
9	8	6	9	2	6	8	5
7	1	7	1	7	5	2	8
4	5	9	3	1	7	5	2
8	1	2	5	9	3	7	6
5	4	3	6	2	7	1	8
1	8	4	1	2	5	3	6

4	3	6	8	9	2	5	7
2	6	9	3	4	7	1	8
4	3	8	4	5	1	2	6
7	6	4	8	5	2	1	9
3	2	5	9	7	1	7	6
8	1	7	1	7	5	2	8
3	8	3	3	1	7	5	2
7	8	4	3	6	9	2	5
1	4	3	6	2	7	1	8
5	7	8	6	2	4	3	1
6	2	1	3	5	4	8	7

R	V	Z	I	N	I	V	G
V	E	T	U	V	A	R	I
O	L	O	K	V	Z	V	
D	K	V	U	L	V		
N	U	L	I	O	R	O	
O	T	O	R	O	V		
V	A	E	R	D	E	B	
G	N	I	K	N	V	R	
V	U	R	V	A	R	M	A
Z	R	T	O	B	E		
T	R	I	Z				
I	O	Z	O	P			
F	P						

"Dantza ikastaroetan arazoak ahaztu eta autoestimua hobetzen da"

Duela hainbat urte lehiaketa bat irabazi zuen 8 orduz gelditu barik dantzan eginda. Orain ere egingo luke

Dantzan egitea musika erritmoak jarraitzea baino gehiago da Nieves Cuenca Herrerarentzat. Pasioa da, eta osasun eta autoestimua arazoak gaintzen laguntzen du. Berari ere asko lagundu dio azken berrogei urteotan. Bere ametsa Elorrion dantza eskolak emateko eta dantzan egiteko leku finkoa izatea da.

Zelan sartu zinen dantza munduan?

15 urte egiteko nituenean, Errekaldeko lagun batek dantza ikastaro batzuen berri eman zidan. Nik orduan lan egiten nuen, eta arratsaldetan eta ahal nuen guztietan dantza ikastera joaten hasi nintzen, nire ahizparekin. Zaletasun handia hartu genuen, eta lagun koardila dantza egiteko aukera zegoen leku guztietara joaten ginen. Nire aitita gitarra irakaslea zen, eta musika taldeei ere irakasten zien. Euren kontzertu guztietara joaten ginen. Lehiaketa eta erakustaldietara ere bai. Durangon 1973an lehiaketa bat egin zuten, ea nork irauten zuen denborarik gehien dantzan, eta nik irabazi nuen 8 orduz jarraian dantza eginda!

Dantzak erakusten noiz hasi zinen?

Ezkundu nintzenean, seme-alabekin-eta, apur bat aparte utzi nuen dantza kontua. Gero ahizpa bat hil zitzaidan oso gazte. Bere seme-alabak oso txiki hartu nituen etxean. Oso garai txarrak izan ziren niretzako, depresioak jota nentzen. Egun baten Elorrioko lagun batek esan zidan nik dantzan banekielan, eta ea zergatik ez nintzen dantza eskolak eskaintzera orduko Goiko Eskolara joaten. Proposamena egin nien, eta bertan hasi



nintzen neskatilei dantza eskolak ematen. Gogoan dut orduan Spice Girlsak zeudela modan, eta oso ondo pasatzen genuela. Bizkortun ere egon nintzen geroago, hamar urtez. Kainaberako eta Bizkortuko jaialdietan parte hartzen hasi ginen, eta baita Durangon ere, minbiziaren kontrako jaialdian. Niretzako dantza depresio batetik irtetzeko bidea izan zen.

Dantza terapeutikoa dela diote.

Medikuak eta psikologoak konturatu hasi dira dantza dagoen arketarik osoena dela. Oso ona da, gainera, depresioa daukan jendearentzat, eta jende asko dago etxean sartuta irten barik. Medikazioagaz ibilitako jendea etorri zait niri ikastaroetara, jadanik ez dutela pastilarik hartzen esanez. Parkinsona duten ikasleak ere izan ditut. Ikastaroan burua lantzen dute, eta mugimenduak kontrolatzen dabilta, lasaitzen. Nire bizitzan hain garrantzitsua izan den hau irakatsita jendea irakuntzea oso handia da. Autoestimua bako jendea apurka-apurka hobetzen ikusteak poz handia ematen du. Bizirik ikusten dituzu. Ikastaroetan arazoak ahazten dituzte, eta ikasteko gai direla ikusten dute. Azken finean, inork ezin du esan "nik ezin dut hori egin".

Mota guztietako dantzak dakizkizu. Zein gustatzen zaizu gehien?
Saloiko dantzak: tangoa, pasodoblea...

Euskaldunok ez ei dakigu gerria mugitzen. Egia da ala topikoa?
Kultura bakoitzak musika sentitzeko modu bat dauka. Jaio zaren lekuan dantza mota bat badaukazu, musika modu batean sentitzen umetatik hasten zara, eta hemen-

go musika eta Brasilen ume batek txiki-txikitatik bizi duena oso desberdinak dira. Pertsona bakoitzak ere musika sentitzeko modu bat dauka. Badago jendea musika barruan daukana, berdina da non goak diren; jaiotzetik daukate artea eta belarri ona.

Batzuei ez zaie dantza egitea gustatzen

Gustukontua da, eta niretzat arraroa da, baina horrela da! Nik badauzkat Andaluziako lagunak zaiena itsasoa eta mendia gustatzen, dantza ere ez... baina musika bai.

Orain hainbat herritan ematen dituzu ikastaroak.

Banabil han eta hemen ikastaro solteak ematen, baina faltan botatzen dut dantza egiteko eta ikasteko lokal finko bat. Lagun talde bat batzen gara urtero minbiziaren kontra eta Kainaberaren jaialdian dantza egiten dugulako. Lokal batean gaude, baina hori ez da akademia bat. Elorrion jende askok esan dit dantzan ikasi gura dela. Askok flamenkoa ikasi gura dute, eta aurten, azkenean, ikastaroa emateko aukera daukagu. Niretzako polita izango litzateke, gainera, herrian Rocioren jaia ospatzea, adibidez. Edo, zergatik ez, Musikaren Eguna, Dantzen Eguna edo horrelako zer edo zer antolatzea; herrian irakasten diren gauza guztiak erakusteko egun bat.

Nieves Cuenca Herrera •

Dantza irakaslea

Elorriarra da



Juanito Gallastegi Abadea

'Azken agurra' berrito be

"Abadea zarenez, ez dozu bat egingo azkenagurra Anboton zuk asko ezagutzen dozun emakume batek azaldu eban iritziagaz", esan eustan batek, Lauhortzan agertutako 'Azken agurra' zutabeari buruz.

Ez dot bat egingo, ba!

Zenbat bider egon nazen desegoki, nire lagun asko legez, hiletetako meza emoten.

Zer egiten dau gorpu horrek hemen, bere jabeak bizi izan dela elizagaz ezer gura izan ez dauenean? Jakina, ez dinot hori duina ez dela uste dodalako. Fededunon ustez, denok daukagu duintasun bardina, eta ez edozelakoa, Jainkoaren seme-alaba izatearena baino. Baita fedebakoan ustez be, gizatasun hutsari esker.

Zertara etorri ete dira aurrean dagoen horrek, noiz jesarri, noiz zutundu, zelan egon... ez dakieela, neuribelegu eta ekintza ezezagun baten jazoako litxakidan legez?

Zer egiten dauen hildakok aketazertara etorri diren azken laguntza emon gura deusienak? Ba lehenengokoa, ohitura hutsak elizara ekarri daue-lako, eta horreek, agur egiteko edo omenalditxo eskaintzeko, elizara etortzea baino beste biderik izan ez dabelako.

Eta jakina uste dodala holan ez litzateke izan behar!

Kristau nazen aldetik, badakit gizarteak ez dauela berez loturarik izan behar erlijio bat edo bestegaz, edo erlijiorik ezagaz. Askatasuna denon gainetik, baina askatasunez jokatzeko bideak behar!

Zer egin, orduan? Ez dakidanez, ezin esan, baina urratsak emon beharko geunke zintzo jokatzen eta zintzo jokatze bideak asmatzen, naturaltasun guztiagaz. Denok izango ginateteke irabazle.

Pinturas
Sagasta
Pinturak

APAINGARRIA ETA INDUSTRIALA

• Fatxadetarako proiektu bereziak (inpermeabilizazioak, barnizatuak, ...)

• Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)